

Itaia, proposamen politikoa:

Emakume langileon zapalkuntzaren analisi egokia egiteko, beharrezkoa da emakume langileok zapalduta mantentzen gaituzten eginbehar eta inposizio sozialak txertatuta ageri diren osotasun edo errealitate soziala ulertzea; hau da, gizarte kapitalistan zapalkuntzak berak betetzen duen lekua aztertzea. Modu horretan, kapitalismoa ezaugarritzen duen klase dominazioaren baitan kokatu dezakegu zapalkuntza eta ulertu, botere burgesaren betiketze prozesuan eraginkorra bihurtu dela emakume langileok zapaldutako kolektibo gisa mantentzea.

Esku gutxi batzuetan aberastasuna etengabe bermatzeak eta areagotzeak, langileriaren esplotazioa du oinarri. Aldiz, langileriaren barnean existitzen diren kate-begi ahulenak dira aberastasuna hazteko berme onena, sektore horien baldintza prekarioek etekin gehiago lortzeko aukera ematen baitie klase jabeedunei: gutxiago ordaintzen zaielako, lan baldintza okerragoak onartzera behartuak daudelako, euren eskubideen alde borrokatzeko aukera gutxiago dituztelako... Hori da emakume langileon kasua: gizarteko lan banaketa sexualak eta ondorioz ematen den zapalkuntzak, azpiratutako kolektibo bilakatu gaitu eta zer esanik ez emakume etorkinek jasan beharreko muturreko egoerez. Horrek onura ekonomiko eta politikoak ekartzen dizkio burgesiari.

Bizi dugun krisi garaian, are penagarriagoa bilakatzen da gure egoera: azken hamarkadetan abiarazitako garapen teknologikoak eta robotizazioak, esku lana alboratzeko joera indartu du. Beraz, gero eta lan gutxiago behar du sistemak -langabezia estrukturala gizartearen ezaugarri bilakatuz-, eta behar duen lan hori ahalik eta merkeena izatea nahi du, bere onura ekonomikoak mantendu ahal izateko. Hori orokorrean langileriaren eta konkretuki zapaldutako kolektiboen muturreko esplotazioaren bidez soilik lor daiteke. Emakume langileon bizi baldintzek beraz, ez dute itxura onik, jada ikusten ari garen bezala: gero eta zaintza zerbitzu asko gure bizkar gainean eramango ditugu. Hori sozialki normalizatu eta onartzeko gainera, gure aurkako ofentsiba kulturala agerikoa da: emakumeok kontsumo objektu bilakatzen gaituzte gure gorputzen gaineko sexualizazioaren bitartez. Horrek etekin ekonomikoak lortzeko ekoizpen adar garrantzitsuak irekitzen ditu eta era berean, emakume langileon aurkako indarkeria matxista normalizatzen du.

Egoera horren aurrean beharrezkoa da emakume langileon askapenera bidean ekarpena egingo duen proposamen politiko osatu eta eraginkor bat garatzea. ITAIA Emakumeon Antolakunde Sozialista beraz, emakume langileon interesak defendatu eta borrokatzeko tresna izan behar da. Horrela, emakume langileon bizi eta lan baldintzak hobetzeko apustua egiten dugu, bide horretan ahalik eta emakume langile sektore gehien batuz eta emakumeok aktibo politiko bilakatzeko intentzioarekin.

Jakin badakigu emakume langileon emantzipaziorako oinarriak ez direla egun batetik bestera lortuko, argi baitauekagu elite ekonomiko eta politikoen eskuetan pribatizatua dagoen aberastasuna erauzi gabe eta beraz, kapitalak definituriko gizarte antolaketa gainditu gabe ezinezkoa izango dela zapalkuntzarik gabeko gizarte bat eraikitzea. Horregatik diogu Estatu Sozialistaren eraikuntza dominaziorik gabeko gizarte baterako premisa dela. Baina bide horretan, egun ditugun posizioak mantentzeko defentsa

bitartekoak garatzea eta gure bizien gaineko kontrol graduak handitzeko baliagarriak izango diren borroka martxan jartzea behar-beharrezkoa dela uste dugu.

Zentzu horretan, guztiok bizi baldintza berdinak izango ditugun gizarte eredu baten nolakotasuna eta norabide horretan ITAIAREN izaera eta jarduna definitzen ditu bideorri honek:

<https://youtu.be/Ba6gAtsk5Us>

Gazte Langileontzako Proposamen Politikoa

Gazte Koordinadora Sozialista 2022

https://www.gks.eus/_files/ugd/8171b5_14466d0762ed40ab931f2dcd2ef29baa.pdf

SARRERA

Gizarte kapitalista krisi eta gainbehera betean sartuta dago. Nahiz eta krisialdi honek orain dela urte batzuk egin eztanda, urteetan zehar luzatzen doan prozesua da, eta azken urte hauetan intentsitatez igo da, batez ere pandemiaren etorrerarekin batera: lan kaleratzeak eta lan malgutasuna, produktuen eskasia, mundu mailako hornikuntza kateen haustura, inflazioa (energia, lehengaiak, oinarrizko produktuak, gasolina, oinarrizko produktuak...), zerbitzu publikoen murrizketak, gatazka militarren igoera eta gerrateak... Ikuspuntu ekonomiko, politiko, beliko eta ekologikotik begiratuta, begien bistakoa da testuinguru arriskutsua eta autoritarioa sortzen ari dela.

Kapitalismoaren krisialdi honetatik proletarizazio prozesua ari da gertatzen, eta milioika pertsonen lan eta bizi baldintzak modu nabarmenean okertzen ari dira mundu osoan zehar. Europa eta zentru inperialistari dagokionez, ertain klase zabal bat existitzen zen gizartearen amaieraren hasiera inplikatzeko du, ertain klasearen desintegrazio eta polarizazio prozesua garatzen ari baita. Prozesu hori gazte esparruan ere oso nabarmena da, izan ere, gazte esparrua erabili izan ohi da bertako baldintzak okertu eta ondoren langile klase osoaren baldintzak okertzen joateko. Errezeta sozialdemokratek, alternatibismo faltsuek eta alderdi parlamentarioen gazte politikek ez dute errealitate hori eraldatuko. Horiek ez dira ez gazteon pobrezia ezabatzeke gai, ezta gazteon aktibazio politikoa bultzatzeko gai ere. Are gehiago, enpresari handien eta politikari profesionalen fartsarekin hautsi behar dugu, eta langileria modu independentean antolatu behar da, gazteok bertan paper aktiboa jokatzeko.

Hori horrela, garai zail eta autoritario honetan, GKStik gazte langileen proletarizazioari aurre egiteko borondatea erakusten dugu eta, bide horretan, gazte langileontzako proposamen politikoa osatu dugu. Proposamen politiko hau gaur egungo testuingurura egokituta dago eta bera aldatzen den heinean eguneratu beharreko zerbait dela ulertzen dugu. Proposamen honen bitartez, gazte langileen artean elkartasuna antolatu, kontzientzia politikoa piztu eta bizi ditugun miseriak borrokatu nahi ditugu. Injustiziei aurre egitea eta eskubideak lortzeko borroka egitea da gure postura politikoa.

Datozen lerroetan proposamen politiko horren azalpena emango dugu: batetik, gazte langileen egoeraren analisia egingo dugu eta, bestetik, horren aurrean egiten dugun proposamen politikoa azalduko dugu, gazte problematikaren auzi nagusiak eta horien aurre egiteko aldarrikapen batzuk mahai gainean jarritzeko.

TESTUINGURUAREN ANALISIA: PROLETARIZAZIOA GAZTE ESPARRUAN

Lehen esan dugun bezala, proletarizazio prozesua oso nabarmena da gazteongan. Zentzu horretan, gazte langileon hiru ezaugarri nagusi azpimarratu nahi ditugu: a) egiturazko langabezia eta bizi ereduaren pobretzea, b) burgesiaren dominazio kulturala eta c) eskubideen ezabapen sistematikoa.

1.1. Egiturazko langabezia eta bizi ereduaren pobretzea

Esan bezala, proletarizazio- eta polarizazio-prozesu horrek klase ertainetako behe-geruzen desintegrazioa eta aurrez proletarizatutako sektoreen pobretze handiagoa eragiten du. Horregatik, proletarizazioa prozesu eta tendentzia moduan ulertzen badugu, berau maila desberdinetan garatzen dela eta klase-segmentu desberdinei eragiten diela ikus dezakegu, hainbat problematika sortuz. Gazteon kasuan, haustura ekonomiko horrek belaunaldi-izaera hartzen du, gure gurasoak baino okerrago biziko garen ideian laburbildu ohi dena. Gazte langileen baldintza ekonomiko orokorrak kontuan hartzen baditugu, langabezia, aldizkako lanak, azpienplegua eta soldata baxuak dira nagusi. Lan-ezegonkortasuna gazte gehienon errealitatearen parte da, batetik aldi-baterako lanetan ibiltzen garelarik (askotan azpienplegu forman) eta, bestetik, langabezia kronikoa bizi dugularik. Lan-merkatuaren egoeraren ondorioz, kualifikazio-maila desberdineko (unibertsitatekoa, kualifikazio ertaina, ikasketarik gabea...) langile gazteak antzeko enplegu ez-kualifikatuetan aritzen dira, lan-baldintza prekarizatu berdinekin.

Proletarizazioak bizimodu pobretu batera kondentatzen gaitu. Hau are eta nabarmenagoa da inflazioaren eta zerbitzu publikoen murrizketen garaiotan. Gazte baten soldatarekin ezin da bizi-proiekturik eta etorkizun egonkorrik izan. Zailtasunetako batzuk honakoak dira: garraioari dagokionez, geroz eta kontraesan handiagoa dago mugitzeko beharraren eta horretarako dauden zailtasunen (gasolinaren eta kotxeen prezioa, peaje berriak, zenbait tokitako garraio publikoaren zerbitzu kaxkarra...) artean, kontuan izanda lanerako joan-etorriak lanaren beraren parte direla. Horren ondorioz, lanetik kanpo dugun mugikortasuna minimora murrizten dugu eta horrela gure bizimodua pobretzen dugu. Etxebizitzari dagokionez, irtenbiderik gabeko egoeran aurkitzen gara; etxe bat erosteko zailtasunak eta alokairuaren merkatuaren egoera (prezio altuak eta eskaintzarik eza) direla eta. Gure soldatak baxuak izaten direla kontuan hartuta, batzuetan egoera honek mugarik gabe atzeratzen du gazte langileon emantzipatzeko aukera eta beste batzuetan pisua partekatzea behartzen gaitu. Horrez gain, geroz eta zailtasun handiagoak ditugu beste zenbait oinarrizko zerbitzutara sarbidea izateko: osasuna, energia, hezkuntza, kultura, kirola...

Bizimoduaren pobretze honek bizi-ezegonkortasunera eta mendekotasun ekonomikora eramaten gaitu. Lehen esan bezala, lan arlotik haratago ezegonkortasunak gure bizitzako aspektu askotan eragiten du eta, bestalde, bizirauteko dugun besteekiko mendekotasun ekonomikoa (normalean familiarena) saihestezina izaten da. Horregatik, familiaren egoera ekonomikoak gaztearen proletarizazio maila zehazten du neurri handi batean: familiaren laguntzaren mende dauden gazteak daude, baina baita familia bera mantentzen dutenak eta familiarik ez dutenak ere. Etxebizitza (ondare higiezin, zorrak...) edo hezkuntza (ikasketak-maila, matrikulak ordaintzeko eta ikasketak luzatzeko gaitasuna, kanpoan ikasteko aukera izatea...) bezalako gaietan, jatorrizko familiaren klaseak determinantea izaten jarraituko du eta gazteon aukerak neurri handi batean baldintzatuko ditu.

1.2. Burgesiaren dominazio kulturala

Errealitate ekonomiko eta sozialetik harago, burgesiak kulturalki ere dominatzen du. Izan ere, kapitalismoaren krisiak milioika pertsona miseriara kondenatzen dituen heinean, gero eta jende gehiagok gizarte eredu kapitalistarekiko atxikimendua gal dezake. Gauzak horrela, burgesiak bide desberdinak ditu jendea gizarte kapitalistara lotuta mantentzeko, besteak beste, indarraren bitartez (jazarpen poliziala, biztanleriaren gaineko kontrol telematiko...) edota kulturalki interbenituz. Azken horri dagokionez, gazteoi bideratutako kultur industria eta hezkuntza sistema nabarmendu nahi ditugu. Lehenari dagokionez, jakina da gazteoi bideratutako kultur industria erraldoi bat existitzen dela (sare sozialak, entretenimenduaren industria, masa komunikabideak...), zeinak gazteon jokabideetan eta pentsamoldean sekulako eragina duen². Izan ere, kultur industria erraldoi horrek zuzenean baldintzatzen ditu gazteon artean daukagun harremantze eredu, denbora librearen kontsumoa, aspirazio pertsonalak, errealitatearen gaineko ulerkera, aisialdia eta abar.

Plataforma digital horiek gaur egun sortzen dituzten ondorio kaltegarri batzuk azpimarratu nahi ditugu, besteak beste, indarkeria matxista eta gazteon hipersexualizazioa, zeinak gazteon bizitzetan sekulako zentralitatea duen. Bideoklipek, moda industriak, sexu industriak eta abarrek hauspotzen dute muturreko sexualizazio hori³

, gazte guztiei eragiten die eta indarkeria matxistarekin lotura zuzena du (bestelako ondorio eta gaixotasunak eragiteaz gain). Despolitizazioa, izan ere, kultur industria horrek ez gaitu bizi dugun errealitatea eraldatzeko aktibo politiko bihurtzen. Are gehiago, komunikabideen manipulazioak zein kriminalizazioak, gehienbat influencer-en bitartez zabaltzen den pentsamendu aspirazionalak⁴ eta hegemonikoak diren mezu ideologikoen (musika mundukoak, youtuberrek, twitch, politikariek...) jokoz kanpo uzten dute militantzia politikoaren aukera. Horrez gain, datorren bizi eredu pobrearen normalizazioa plataforma digitalek sortzen duten ondorioetako bat da. Masa komunikabideen bitartez (pobreziara ohitu eta gure bizi ohiturak aldatu behar ditugula esaten digutenak), poliziaren jazarpenaren bitartez (adibidez, pandemiaren testuinguruan gertatu zen bezala) eta bestelako bitartekoetatik (bideo-jokoak, musika, serieak...), sortzen ari den gizarte eredu pobrera eta autoritariora ohitu nahi gaituzte: lanik ez dagoenez, diru gutxi edukitzera ohitu behar dugula; gure segurtasuna handitzeko poliziaren baliabideak eta kontrol mekanismoak handitu behar direla, bizi egonkor eta duin bat edukitzea ezinezkoa dela guztiontzat eta abar.

Nahiz eta esaten ari garenaren baitan salbuespenak egin daitezkeen, gazteon artean nagusitzen den tendentzia orokorra ari gara marrazten. Gainera, ezin dugu ahaztu burgesiaren dominazio eta hegemonia kulturalerako aparatuak direla gaur egungo plataforma digitalak.

Izan ere, enpresari handiek izugarritzko irabazi ekonomikoak lortzen dituzte esparru horietan, kontrol sozialerako balio duten aparatuak dira⁵ eta, azaltzen ari garen bezala, kultur interbentziorako aparatuak dira. Argia da plataforma digitalen eta koiuntura ekonomikoaren arteko lotura estua, eta plataforma horiek sortzen dituen ondorio kaltegarriari aurre egin behar diegu.

Bigarrenari dagokionez, burgesiak gazte langileongan interbenitzeko erabiltzen duen beste instituzioetako bat da hezkuntza. Burgesiaren hezkuntza ereduaren helburua ez da gazteen gaitasun intelektual eta moralak hobetzea, baizik eta akumulazio zikloaren beharretara egokitzen den pertsona eredu sortzea.

Horregatik, ziklo ekonomiko berri bat irekitzen ari den hamarkada honetan, hezkuntzan ere erreformak eta modernizazioak egiten ari dira. Erreforma prozesu horretan gauza asko aipatu badaitezke ere, pare bat elementu nabarmendu nahi ditugu. Batetik, eta orain esan bezala, gazte belaunaldien lan indarra (merkea eta obedientea) formatzen duela hezkuntza eredu burgesak. Horren adierazle dira heziketa dualaren zein ordaindu gabeko praktiken kasua, esperientzia irabaztearen aitzakiapean ikasketak eta lana konbinatzea bideratzen gaituztenak. Gazteon denbora libreza ezerezera murrizten dute (dual batzuen kasuan goizez ikasi eta arratsaldean lan egin, edo alderantziz) eta enpresarien etekin ekonomikoa areagotzen da.

Bestetik, urte hauetan garatzen ari den erreforma prozesuaren bitartez, hezkuntzan gero eta pisu gutxiago dauka edukiak. Ikasleria formatu eta jakintza garatzearen garrantzia azpimarratu beharrean, gazteen diziplinamendua dakarren eta gero eta heziketa eredu autoritarioagoa duen forma hartu du. Hori horrela, ondorengo ezaugarriak areagotzen ari dira: txikitatik gizarte kapitalistara moldatzeko eta bera zalantzan ez jartzeko bizi ohituretan hezten gaituzte (ordutegiak, irakasleekiko obedientzia...), hori horrela izan dadin kontrol mekanismo ezberdinak aktibatuz (plataforma digitalak, esaterako); eskubide politikoaren urraketak areagotu egin dira ikasguneetan (greba eta biltzeko eskubidea, adibidez); jarrera autoritarioak ere gora egin du (irakasleen hitza zalantzan jarri ezin izatea, ikasleen iritzia gutxiestea, ikasleak erabakietatik kanpo uztea...) eta abar. Horri guztiari hezkuntza eredu honen izaera baztertzailera gaineratu behar zaio, non pixkanaka ikasleriaren geruza zabal bat hezkuntzatik kanporatzen ari diren arrazoi ekonomikoak direla medio (familien pobretzea, graduaren eta masterren prezioen gorakada, oinarriko bitartekoaren kostua: garraioa, materiala, klase partikularrak...). Erreforma prozesua, beraz, heziketaren desagitea, pixkanaka proletariotza hezkuntzatik kanporatzea eta gazteon diziplinamendua eta despolitizazioa ekartzen ari da, besteak beste.

1.3. Autoritarismoa eta eskubideen ezabapena

Krisi politikoarekin estuki lotuta dago autoritarismoaren eta eskubideen auzia. Izan ere, kapitalismoaren krisiarekin batera, burgesiaren gobernatze forman aldaketak gertatzen ari dira eta autoritarismoa etengabe handitzen ari da. Horren adierazle da azkenengo urte hauetan kriminalizazioa, jazarpen poliziala, kontrol soziala, errepresioa eta bestelako gertakariak areagotu izana. Gainera, enpresari handiak eta politikari profesionalak langileriaren desartikulazio egoeraz probesten dira testuinguru gero eta autoritarioagoa ezartzeko: salbuespen politiken aplikazioa, kode penalaren gogortzea, kontrol mekanismoen hazkundera, eskubideak murrizten dituzten erreformen onartzea, gerra testuingurura egokitzeko neurriak onartzea eta abar luze bat.

Tendentzia hori guztia gazte esparruan oso nabarmen ikus daiteke; izan ere, masa komunikabideek etengabe kriminalizatzen gaituzte, subjektu infantil eta arduragabe gisara ezaugarrituz. Sarri gertatzen da, halaber, gazte proletarioon aurkako poliziala jazarpena, pandemia garaian argi eta garbi ikus zitekeena. Eskubideen urraketa berezkoa eta normala den belaunaldian bilakatu nahi gaituzte, burgesiak eskaintzen digun etorkizuna horrelakoa izango baita.

1 Ez dira gazteen ezaugarri eskusiboak, baina gazte langileon egoera orokorraren adierazle dira.

2 Burgesiaren dominazio kulturala haratago badoa ere, gazteon bizitzetan zentralitatea duten plataforma digitaletan jarri nahiko genuke arreta, bai eta horiek sortzen dituzten zenbait ondorio kaltegarritan ere. Plataforma digitaletan ari garenean, besteak beste, sare (Instagram, TikTok, Twit-

ter, Tinder, Facebook, Whatsapp...), komunikabideetaz (telebistako eta interneteko programak, podcastak...), plataforma zinematografiko eta audiobisualez (YouTubeNetflix, Amazon Prime, HBO, Twitch, musikaren industria...) edota bideoez ari gara.

3 Kontuan eduki behar da plataforma digital hauen atzean industria kapitalista ugariren interesak ezkututzen direla: bestek beste, moda-industriarena, alkoholarena, armena, prostituzioarena, drogena, segurtasun agentziena, inteligentzia zerbitzuena...

4 Pentsamendu aspirazionalaz zera esan nahi dugu: gazteon artean hedatuta dagoen pentsamoldea, zeinak dirudun eta famatu izatera aspiratzen duena. Hau da, burgesiaren industriak sortzen duen ideala aberatsaren figura da edo, hobeto esanda, aberats bihurtzen den pobreaken figura, edozein bidetatik dirutza irabaztera iritsi dena. Despolitizazioaren adierazle da pentsamendu aspirazionista hori; izan ere, ez du planteatzen aktibo politiko bilakatzea (injustiziei aurre egiteko antolatzen eta borrokatzen duena), baizik eta norbanakoa aberats edo famatu bihurtzea. Influencer-ak, oro har, ideal hori sustatzen dute, bai eta bestelako figura eta plataformek ere.

5 Sare sozialetan zentralizatzen eta gestionatzen den informazioa, norbanakoaren bizitzaren nondik norako guztiak eta datu pertsonalak, masen inguruko informazio iturri baliotsuenetarikoa eta hortaz, garestienetariko bat da. Informazio horrek sare sozialek gizartearengan eragiteko duten gaitasuna eta efektibitatea handitzen dute.

ESTATU SOZIALISTAREN BEHARRA GAZTEON PROLETARIZAZIOARI AURRE EGITEKO

Gazteriak zapaldutako sektore izateari uzteko beharrezkoa iruditzen zaigu Estatu Sozialista eraikitzea. Sozialismoak ez dauka inolako zapalkuntza modalitatearen beharrik, are gehiago, zapalkuntza guztien gaindipena inplikatzeko du, eta gazteriari dagokionez, gazte langileon problematika gainditzeko eta gazteriaren on garapen aserako baldintzak jartzeko berme bakarra da. Horregatik, gazte antolakunde gisara, sozialismoaren eraikuntzarekin lerrokatuta gaude, bai eta gaurdanik horren eraikuntzarako lanarekin konprometituta ere.

Horregatik, gure jardunak Estatu Sozialista dauka helburutzat eta norabide horretan txertatzen dugu Gazte Langileontzako Proposamen Politikoa. Horrekin batera, Estatu Sozialista lortzeko beharrezko aurrebaldintza langileriaren independentzia politikoa dela uste dugu: enpresarietarako eta politikarietarako modu independentean antolatu behar gara langileok eta estrategia sozialista komun bati erantzun behar diogu. Langileriaren independentzia politikoaren bitartez baino ezingo da Estatu Sozialista eraiki, sozialismoa maila internazionalen antolatzea eskatzen duena. Bide horretan, aldi berean, sozialismoaren aldeko zentzu komuna eta kultura politikoa hedatu behar ditugu langileriaren artean.

GAZTE LANGILEONTZAKO PROPOSAMEN POLITIKOA

Hasieran esan dugun bezala, proposamen politiko hau eguneratzen joan behar dela uste dugu; hau da, egoera sozioekonomikoa aldatzen doan heinean, horretara egokitzeko gaitasuna eduki behar du, norabide politikoa zein den ahaztu gabe. Horretarako borondatea berresten dugu. Behin hori esanda, gaur egungo gazte langileon egoeraren analitiko bost auzi nagusi identifikatu ditugu: 1) gazte lan merkatuaren auzia, 2) gazteon pobretze eta bizi ereduarena, 3) gazteei bideratutako kultur industriarena, 4) hezkuntza

sistemarena eta 5) autoritarismoaren eta eskubide kolektiboen auzia. Gazte problematikaren auzi horiei hamabi aldarrikapen kontrajarri dizkiegu:

Gazte Lan Merkatua

1. LAN BALDINTZA BERDINAK GUZTIONTZAT

Guztiok lan baldintza berdinak izan behar ditugula defendatzen dugu. Aldarrikapen hau hainbat zentzutuan ulertu behar dugu. Alde batetik, lan baldintza berdinak izan behar ditugu: eskubideak langile guztiontzako, soldata arrakalarekin amaitu... Langile klasearen artean sektore pribilegiatuak, hierarkiak eta klasismoa (soldata hobeak, aitortza handiagoa, segurtasun zein egonkortasun gehiago..) sortzen dituzten mekanismoak ezabatu behar dira. Guztiok kalitatezko bizitza edukitzea da helburua, ez denon artean ogi- apurra banatzea. Hau da, langileriaren artean dagoen estratifikazioaren eta atomizazioaren aurrean, langileriaren batasun ekonomikoa eta politikoa defendatu behar dugu. Beste alde batetik, norabide orokor bezala, guztion bizi eta lan baldintza berdinak izan behar ditugula defendatzen dugu. Noski, hori ezinezkoa da kapitalismoan, klaseen arteko bereizketan eta zapalkuntza ugaritan oinarritzen den gizarte eredua baita. Horregatik, sozialismoaren eraikuntza beharrezkoa da guztion bizi eta lan baldintza berdinak lortu ahal izateko 1

1 Soldataren inguruan hitz egiten dugunean, bi adiera orokor barnebiltzen dituela kontuan eduki behar dugu: batetik, soldata zuzena (laburbilduz, langileak soldata gisa jasotzen duen diru kantitatea); bestetik, zeharkako soldata (zerbitzu publikoak -osasungintza, hezkuntza...-, diru laguntzak eta abar). Horrenbestez, langile klasearen erreprodukzioa bideratzen diren baliabideei egiten diegu erreferentzia soldata terminoaren bitartez. Soldataren inguruko borroka, beraz, ez da lanpostura mugatzen den zerbait eta estrategia integral bat galdegiten du

2. GAZTEON LAN BALDINTZA PREKARIOEKIN AMAITU

Aurreko aldarrikapenaren ondorio bezala, langileriaren baitan gertatzen diren gehiegikeria eta esplotazioarekin amaitu behar dugu. Gazte langileoi dagokigunez, enpresari asko gutaz probesten dira beraien etekin ekonomikoak handitzeko. Horrela, lan gogorrak eta arriskutsuak egitera bultzatzen gaituzte, ordu extrak egitera behartzen gaituzte (ordu horiek ez dituzte beti ordaintzen), aldi baterako lanetara kondentzen gaituzte, segurtasunik gabe beltzean lan egitera eta abar. Hau, langileria osoaren egiturazko baldintza den

esplotazioari amaiera jartzearekin batera elkarlotu behar dugu.

Bizi-ereduaren pobretzea

3. OINARRIZKO BIZI BITARTEKOAK BERMATU

Mundu guztiak oinarrizko bizi bitartekoak bermatuta eduki behar ditu, hala nola etxebizitza, osasungintza, elikadura, aisialdia, kirola... Bitarteko eta zerbitzu horietarako sarbidea pertsona guztiek bermatuta izan behar dute, bakoitzak duen diruak baldintzatu gabe. Ongizate-estatuaren desegite garaiotan (dagoeneko atzera bueltarik ez duena) ordaindu dezaketenek kalitate handiagoko zerbitzu pribatuetara jotzen dute; bestalde, pobreentzako sistema publiko bat geratzen da, minimoetara murriztua. Izan ere, merkatuaren edo Estatuaren bidez esparru horiek guztiak zuzenean edo zeharka kontrolatzen dituzte bankari eta enpresaburu handiek, irabaziak areagotzeko negozio gisa. Horregatik, ahal den neurrian, eredu publiko-pribatua gainditu behar dugu, eta eremu horiek guztiak langile-klasearen kontrolpean jarri behar ditugu, gizarte osoaren beharrei erantzun diezaieten. Gizarte aske batek, beraz, baliabide horien sozializazioa inplikatu behar du, haien kalitatea, doakotasuna eta unibertsaltasuna bermatuz

4. DENBORA LIBRERAKO ETA NORBERAREN GARAPEN ASKERAKO BALDINTZAK SORTU

Gazte langileok ezaugarri komunak baditugu ere, konkretuki gure bizitzak ez dira guztiz homogeneous. Desberdintasun nagusi bat landuna izatean edo langabea izatean datza 2 . Kontuan eduki behar da, gainera, gazte proletario askok (ez soilik gazteok) bestelako eginbeharrak ere baditugula: ikasketak eta lanpostua aurkitzeko formazio gehigarriak, bestelako lanpostu txikiak, etxeko eta zaintza lanak, burokrazia... Gauzak horrela, denbora librerako eta norberaren garapen askerako baldintzak sortzea beharrezkoa deritzogu. Izan ere, denbora libre beharrezkoa da bizi eredu aske baterako, bai eta denbora hori probesteko bitartekoak edukitzea ere. Gaur egun, diruz baino ezin dira eskuratu denbora librerako baliabideak, bai kirolari, arteari eta aisialdiko aktibitateei dagokionez, besteak beste. Zerbitzu eta baliabide horien kalitatea ere, nola ez, diru kopuruaren arabera dira: kirol instalazioak, dena delako materiala, kontzertuak, ikuskizunak... Horrekin batera, gizarte aske batek

norbere garapen askerako baldintzak jarri behar dituela uste dugu, gaur egun gertatzen ez den bezala. Izan ere, batetik, soldata txikiek ahalbidetzen digutena baino ezin dugu eskuratu eta, bestetik, burgesiaren kontrolpeko hezkuntza sistemak eta kultur industriak zuzenean determinatzen dute gure izaeraren zati handi bat, berau modu askean garatzeko aukerarik gabe uzten gaituen bitartean: usteak eta ideiak, anbizioak, desirak, harremantze moduak, errealitatearen inguruko informazioa eta ulkerera... Beraz, langileen antolakuntza sozialistaren erronketako bat ere bada norberaren garapen askerako baldintzak sortzea.

2 Bi aukera nagusi horien artean, aldi baterako lanak edota ordu gutxiko lanpostuak edukitzea dira kasu nagusiak.

5. INGURUGIROAREN SUNTSIPENA BORROKATU

Kapitalismoaren ekoizpen ereduak irabaziei baino ez die begiratzen eta azken mende zein hamarkadetan burgesiak mugarik gabe ustiatu du natura, gizakiaren eta naturaren arteko oreka oro apurtuz. Orain, beraien masa komunikabide eta plataformen bitartez, ardura guztiona dela sinetsarazi nahi digute, eta beraiek ere larrialdi klimatikoarekin arduratuta eta konprometituta daudela. Guk, posizio orokor bezala, argi eta garbi ikusten dugu gizarte kapitalistaren baitan ezin zaiola aterabide unibertsalik eman larrialdi klimatikoaren auziari. Beraz, esparru honetan ere sozialismoaren proiektua behar beharrezkoa dela uste dugu, berau baita gizaki-natura harreman orekatua berrezarri (jada beranduegi ez bada...) eta errespetatuko duena. Noski, larrialdi klimatikoaren ardura ez da norbanakoena, enpresari handiena baizik. Zentzu horretan, erantzukizuna langilearen gain jartzen duten neurri politikoaren aurka gaude, baita trantsizio energetikoaren izenean ingurumena suntsitzen jarraitzen duten proiektuen aurka ere.

Gazteoi bideratutako Kultur-industria

6. INDARKERIA MATXISTA BORROKATU

Indarkeria matxista garai honetako arazo larrienetako bat da. Gazteen belaunaldi berriak hipersexualizazioak zeharkatzen ditu, neurri handi batean kultura-industriaren eraginez. Fenomeno horrek eragin handia du gure jokabide eta pentsamoldean: itxurarekiko obsesioa, azaleko

harreman pertsonalak eta sexualak kontsumitzea... Lotura zuzena dago hipersexualizazioaren eta indarkeria matxistaren artean. Izan ere, emakume langileriaren zapalkuntza erreproduzitzea dakar, sufrimendu handia eragiten du emakumeengan eta oztopo izugarria da jendarte aske baten eraikuntzari dagokionez. Zentzu horretan, berebizikoa ikusten dugu gazteoi bideratutako kultur industriak zabaltzen dituen eduki hipersexualizatuak problematizatzea eta indarkeria matxistari aurre egitea eta gazteoi bideratutako kultur industriak zabaltzen dituen eduki hipersexualizatuak problematizatzea.

7. POBREZIAREN NORMALIZAZIOARI AURRE EGIN

Masa komunikabideen eta plataforma digitalen bitartez, orokortzen ari diren bizi-baldintza proletarioak normalizatu nahi dituzte bankari eta enpresari handiek. Testuinguru pobre eta autoritario horretara ohitutako belaunaldian bilakatzen bagara, gizarte kapitalista hori eraldatzeko aukera guztiak ezabatuko lirateke. Horregatik, pobreziaren normalizazioari aurre egin behar diogu, pobrezia ez delako gertakari natural bat, gizarte kapitalistaren ondorioa baizik.

Horrekin batera, pobrezia ez dugu soilik zentzu material batean ulertu behar (bizitzeko oinarrizko bitartekoen falta), zentzu orokorrago batean baizik. Izan ere, gizarte batek dituen gaitasunekiko loturan ulertu behar dugu pobrezia bera. Zentzu horretan, gaur egungo zenbait joera pobreziaren adierazle ere badira: mugikortasun gaitasunaren murrizketa, hezkuntza ereduaren edukiz hustea, biztanleriaren gaineko kontrol telematikoa, indarkeria matxistaren presentzia hedatua, kalitatezko zerbitzu ugari ukatzea langile klaseari, gazte langileon emantzipazio ezintasuna, poliziaren presentzia areagotzea eta abar luze bat. Egungo garai historiko honetan, nahikoa baliabide dago arazo horiei irtenbidea emateko eta langile klase osoarentzako kalitatezko bizi-baldintzak ziurtatzeko, baina horretarako beharrezkoa da gizarte sozialista eraikuntza.

Burgesia, bere kultur-industria eta hezkuntza sistemaren bidez, kontzientzia kritikiko oro eta eraldaketarako ikuspegi kolektibo oro ezabatzen saiatzen da. Horrela, alternatiba faltsuak sustatzen dituen bitartean, gazteriaren antolaketa politikoa

oztopatu eta despolitizazioa bultzatzen du, gazteok pasibo politiko bihurtuz.

8. DESPOLITIZAZIOARI AURRE EGIN

Despolitizazioari aurre egiteak ez du esan nahi politikagintza instituzionalarekiko atxikimendua piztu behar dugunik gazteon artean. Gaur egungo instituzio estatalak burgesiaren erremintak dira, ez instituzio neutral batzuk. Hau da, errealitatea ez digute alderdi politikoek eraldatuko, ez behintzat hobera. Horren orde, kapitalismoaren eraldaketarako kontzientzia eta ilusioa piztu behar dugu gazteon artean, klaserik gabeko gizarte sozialista bezala ulertuta eraldaketa hori. Horregatik, hainbat erreminta sortzearekin konprometituta jarraitzen dugu: formakuntza saioak, dinamikak, eskubide zibil eta politikoen aldeko borroak...

Hezkuntza sistema

9. ENPRESARIEN INTERESETARA DAGOEN HEZKUNTZAREKIN AMAITU

Ziklo produktiboaren eta enpresariaren interesen arabera gorpuzten den hezkuntza ereduaren aurrean, hezkuntza eredu sozialista aldarrikatzen dugu. Hau da, langilearen kontrolpean egongo den hezkuntza eredu (eta ez enpresari handien kontrolpekoa), zeina kalitatezkoa, dohakoa eta unibertsala izango den.

Krisi kapitalistaren testuinguru honetan, aldaketak gauzatzen ari dira eta hezkuntza ez da salbuespena; izan ere. akumulazio fasearen beharren arabera aldaketak jasaten ari da. Hezkuntza erreformen helburuetako bat gazte lan indar merkea sortzea da eta horren adibide dira heziketa duala eta ordaindu gabeko praktikak. Gazteon heziketarako direlako aitzakiarekin, gazteon pobretzea areagotzen dute eta enpresariaren etekinak handitzea dakarte. Gazte langileoi dagokigu aldaketa horiek ezkututzen dutena argitara ateratzea, testuinguruan kokatzea eta betetzen duten funtzioa borrokatzea.

10. HEZKUNTZA EDUKIZ HUSTEARI EZ, AUTORITARISMOA BORROKATU

Aurreko aldarrikapenean esandakoaren bidetik, lan indar desideologizatuan eta obediente bilakatu nahi gaituzte. Jakintza garatzearen garrantzia gero eta txikiagoa da egungo hezkuntza sisteman, pixkanaka edukiz husten ari da eta diziplinamendu

prozesua areagotu da, krisi garaiotan langileriak bere izatearen kontzientzia har ez dezan. Hezkuntzako diziplinamenduaren hamaika aurpegi ikus genitzake, horien artean autoritarismoaren normalizazioa eta eskubide politikoen etengabeko urraketa nabarmendu daitezkeelarik. Beharrezkoa deritzogu prozesu horri aurre egitea.

Autoritarismoa eta eskubide kolektiboak

11. GAZTE LANGILEON AURKAKO KRIMINALIZAZIOAREKIN ETA JAZARPENAREKIN AMAITU

Ahal dugun heinean, gazteon aurkako kriminalizazioari eta jazarpenari aurre egin behar diogu. Agintariek sumiso, obediente, pobreziara eta autoritarismora ohitutako subjektu bezala nahi gaituzte, etorkizuneko kapitalaren ziklora ondo egokitutako lan indar bezala nahi gaituzte. Gazteon garapena eta ahalduntzea bultzatu nahi dutela dioten bitartean, agintariek eskubiderik gabeko subjektu gisan tratatzen gaituzte.

GKStik borondatea daukagu gazte langileon aurkako jazarpenak salatu, eskubideen aldeko dinamikak sortzeko eta gazte langileon aurkako kriminalizazioa borrokatzeko. Benetako kriminala jendea pobreziara kondenatu, bizitzeko zerbitzuak kaltetu, guztion eskubideak ezabatu eta bestelako zapalkuntzak bultzatzen dituzten enpresari handi eta politikari profesionalak dira. Horiek dira benetan kontrolpean eduki behar direnak.

12. ESKUBIDE POLITIKOAK BORROKATU

Gizarte aske baten norabidean pausoak ematen joateko, beharrezkoa da eskubideen eremua zabaltzen joatea esparru guztietan: eskubide zibilen esparruan, esparru ekonomikoan, langileriaren antolakuntza politikoaren esparruan eta abar. Eskubideak borrokaz irabazten dira, langile klasearen belaunaldi desberdinen borrokek frogatu duten bezala eta lorpen horiek estatu sozialistaren eraikuntzaren pausu bezala ulertu behar ditugu. Zentzu horretan, langileok politika independenteki egiteko baldintzak defendatzea eta eskuratzea, gaur egungo burgesiaren ofentsiba politikoaren aurrean. Baina, aldi berean, eskubide gehiago lortzen joan behar gara eta horien alde borrokatu behar dugu gazte langileok.

Ane Ibarzabal eta Unai Martinez. GKSko kideak

«Mahaigaineratu nahi dugu nazio auzia ebazteko beste modu bat»

Gazte Koordinadora Sozialista ez da «hutsetik» sortu, Ibarzabalen eta Martinezen hitzetan, «krisi kapitalistaren testuinguruan» baizik. Ikuspegi horretatik hasi dute analisia.

Berria 2019-03-05

https://www.berria.eus/paperekoa/1873/004/001/2019-03-05/mahaigaineratu_nahi_dugu_nazio_auzia_ebazteko_beste_modu_bat.htm

Gasteizko Auzolana pilotalekuan aurkeztu zuten ehundik gora gaztek GKS Gazte Koordinadora Sozialista, otsailaren 17an. Askok agortuzat zituzten «klase terminoetan» mintzo dira Ane Ibarzabal (1994) eta Unai Martinez (1996), «ez itxurazko erradikaltasun bat antzezteko», hautu politiko gisa baizik, «askotariko zapalkuntzen oinarri komuna azaleratzeko».

«Batzen gaituena sozialismoaren defentsa da», diozue aurkezpen agirian. Batasun hori hutsune batetik al dator?

Ez, GKS ez da ezerezetik sortzen. Proposamen politiko oro bezala, gizarteko errealitate batetik sortzen da, eta gizarteko errealitate bati erantzuteko. Hori da politika: errealitatea egituratzen duen indar harremanen sarean esku hartzea, norbere posizioa eta proposamenak indartzeko.

Beraz, nondik dator batasuna?

Azken urteotan era ez-homogeneoan Euskal Herrian garatuz joan den joera politiko sozialistan du jatorria: lekuan leku garatutako gaztetxeen proposamenak, genero auzia klase ikuspegitik lantzeko sareak eta emakume taldeak, ikasleen borrokak, langileen babes sareak... Oro har, krisi kapitalistaren testuinguruan sortu diren indar eta proposamen politiko sozialistek ahalbidetu dute sorrera. Partaideak, berriz, askotariko proiektuetatik gatoz: kulturatik, unibertsitateko militantzia eremutik...

Sistema kapitalistaz eta gizarte burgesaz ari zarete. Nondik hasi duzue egoeraren analisia?

Fase desberdinak izan arren, sistema kapitalistak lege propioak ditu, eta beti errepikatzen da egoera bat: langileriaren gaineko dominazioa. Ez dugu langileria ikuspuntu ekonomiko soiletik ulertzen. Langile izatea bizi baldintza bat da, bizitzaren eremu guztietara hedatzen dena. Nahiz eta kapitalismoaren funtsa bizi baliabideen jabetza pribatuan aurkitu, kapitalismoak gure bizitzaren esparru guztiak determinatzen ditu. Edonola ere, garrantzitsuena testuinguru historikoa aztertzea da, langileriaren dominazioa zer formetan gauzatzen den ikusteko. Uste dugu krisi kapitalistak definitzen duela egungoa.

Interpretazio hori, ordea, gazte ikuspegitik egiten duzue. Zer garrantzi du aldagai horrek?

Krisiaren efektuetako bat izan da gazteontzako ezegonkortasuna eta bizi proiektiorako ezintasuna. Aurreko belaunaldietako gehienen aukera izan da jabetzara eta kontsumo dinamiketara sarbidea izatea. Hori antolakuntza politiko sindikal eta politiko handien emaitza izan da, baina denboran mugatua, eta deuseztatze bidean dago orain. Gainera, diskurtso eta hiztegi politiko jakin bat egokitzen ari da krisi kapitalistak sortutako egoerara. Klase terminoetan hitz egitea arrotz bihurtu da aurreko belaunaldiko ezker mugimenduko kide askorentzat.

Zuek, ordea, kontzeptu klasikoagoak erabiltzen dituzue, ezta?

Klase terminologia berreskuratu nahi dugu, ez itxurazko erradikaltasun bat antzezteko, baizik eta ulertzen dugulako askotariko zapalkuntzak —arrazarena, generoarena, gazteria langilearena...— klase dinamika globalaren emaitza direla. Ikuspegi ekonomizista eta erredukzionista batek zapalkuntzen oinarri komuna ezkututzen du. Guk terminologia politiko historikoa berreskuratu nahi dugu, oinarri hori azaleratzeko eta mugimendu sozialei klase batasuna ahalbidetzeko.

Egotzi dizuete nazio auzia edo euskal errepublika ez aipatzea.

Auzi bat ebazteko modurik eraginkorrena auzia ongi planteatzea da, eta horretarako galdera bera ongi formulatu behar da, erantzun egokia emateko. Nazio auzia gure ardura nagusietako bat da, baina desegokia iruditzen zaigu zenbaitek nola planteatzen duten. Askok nazio auzia eta auzi soziala bereizten dituzte erabat, bi errealitate diferente balira bezala, eta horien arteko lehentasunak ezartzera behartzen gaituzte. Baina hori auzia planteatzeko modu bat besterik ez da, eta guk ez dugu bat egiten. Horrek jarrera politiko bat ezkututzen du: ulerkera horretan sartzen ez den oro *español* edo *obrerista* bihurtzea, esaterako. Baina argi diogu ez dugula alboratzen nazio auzia. Guk Euskal Herrian nazio auzia ebazteko beste modu bat mahaigaineratu nahi dugu, Euskal Herriaren askatasunaren alde lan egiteko.

Zer eredu da hori?

Kapitalismoak nazio eredu moderno ezberdinu bat sortu du, eta hori burgesiaren gidaritza politikoaren menpe dago erabat. Kapitalismoak sortzen duen komunitate ereduaren elementu gehienak botere burgesaren dinamikari azpiratuta daude: errepide sareak, unibertsitateak, elementu kultural eta linguistikoak, ehun produktiboa... Guk langile klasearen nazioaren eraikuntza defendatzen dugu, non komunitate horren elementuak kontzienteki eta etikoki kontrolatu beharko lirartekeen.

Zer forma luke nazio horrek?

Langile klasearen eta burgesiaren komunitate forma erabat desberdinak dira, eta guk uste dugu botere burgesaren beharrei erantzun beharrean langile klasearen interesei erantzungo dion nazio eredu eraiki behar dela. Lehena jada badago: Espainiako Estatuaren eta 1979ko autonomia estatutuen forman. Bigarrena eraiki behar da: Euskal Estatu Sozialistaren bidean garatu beharreko langile nazioaren eraikuntza.

Euskal Herria zer da zuentzat?

Guretzat Euskal Herria egiten den zerbait da, ez soilik aldarrikatzen dena. Komunitate politikoa eraikitzeko esparru propioa da, bizi forma propioa eraikitzeko langileriaren borondatea badagoelako. Baina bitarteko guztiekin ukatu izan da historikoki, baita egun ere. Horri justizia egitea dagokigu. Bizi forma hori eraikitzeko, beharrezkoa da Euskal Herrian azpiegitura nazional bat garatzea, langileriaren interesei erantzuteko. Bertan, elementu kultural eta linguistiko guztiak komunitate politiko horren bizi espresio izango dira. Kapitalismoak sortzen duen komunitatean, berriz, elementu kultural eta linguistikoak dinamika kapitalistarentzako interes partikularra duten fenomenoak dira, eta biziraupena dinamika kapitalista horren menpekoa da erabat. Horren aurrean, euskal kultura sozialista defendatzea beharrezkoa da. Euskal Herria, beraz, kontzeptu politikoa da guretzat, eta nazio eraikuntza, prozesu sozialistaren parte.

Gainerakoan, nola jaso dituzue lehen erreakzioak?

Aurkeztu baino ez gara egin, eta ikusten ari gara nola baliatzen diren aurkezpen soil baten mugak gure iruditegi sozial distortsionatua sortzeko, ondoren erraz kolpa daitekeena. Politika egiteko modu hau orokortzen ari da pentsamendu liberalean: egia politikoak baino, aurkari politikoaren inguruan sortzen den irudiak definitzen zaitu. Ez dugu bat egiten horrekin, eta kezagarria iruditzen zaigu beren burua kritikotzat duten mugimenduak modu berean aritzea. Ez dugu inola ere eztabaida politikoa saihestu nahi; gure erronketako bat da hainbat auziren inguruko ikuspegia ahalik eta modu garatu eta argiengan plazaratuz joatea.

Klase feminismoa diozue. Inork pentsa dezake genero auzia bigarren mailan uzten duzuela.

Guretzat ez dago lehen eta bigarren mailako zapalkuntzarik. Guztiak dira dominazio burgesaren forma konkrituak. Ondorioz, guztien funtzioa da langile klasea dominatzea. Genero zapalkuntza andre langilearekiko ezartzen da, eta langile klasearen menderatzean sakontzen du. Uste dugu genero zapalkuntza gainditzea botere burgesa borrokatzeko langileriaren estrategiaren baitan kokatu behar dugula. Genero zapalkuntzak berebiziko garrantzia du langileriarentzat, eta militante guztion ardurua da problematika hori geure egin eta gainditzeko antolakuntza bitartekoak sortzea.

Gazte Koordinadora izena hartzea ez da ausazko erabakia...

Gazte problematika ez da gazteria osoari eragiten dion auzia; langile klase osoari bere bizitzaren aro batean eragiten dion fenomeno baizik. *Gazteria* diogunean, langile klaseko sektore bati buruz ari gara. Gazteria langileak funtzio jakin batzuk betetzen ditu botere burgesarentzat; adibidez, irabazi tasa handitzea ahalbidetzen dio. *Gazteria* diogunean, errealitate espezifiko batez ari gara, eta GKSren helburua da errealitate horretan gazte problematikan esku hartzea.

Nola egingo duzue hori?

Tresna espezifikoaren bidez. GKSek ez ditu hasieran aipatutako adierazpen sozialista horiek koordinatuko; gatzetxeak, adibidez. Gazte problematikan esku hartzeko sortuko dituen tresnak koordinatuko ditu. Langile gazteen behar politikoei antolakuntza forma orokorrak eskainiko dizkie, eredu partikular anitzekoak. Horretarako, beharrezkoa da

klase gisa gazte problematikaren elementu guztiak osoki txertatzea, gizartearen funtzionamendu orokorraren baitan hartzen dutelako zentzua.

Berria 2019-03-05

https://www.berria.eus/paperekoa/1873/004/001/2019-03-05/mahaigaineratu_nahi_dugu_nazio_auzia_ebazteko_beste_modu_bat.htm

Erraki, gune autogestionatuen babes sarea aurkeztu da

Garai zailak bizi ditugu egun dominazio burgesak bahituta dituen Euskal lurretan. Krisialdi kapitalistak langile klasean geroz eta gordinagoa den proletarizazioa ekarri du. Geroz eta gehiago dira legearen eta ordena sozialaren dogma zibikoa gainditu eta halabeharrez euren burua legedi burgesetik at pentsatzera behartuta dauden langile sektoreak. Izan ere, jabetgo eza proletargoak gizarte kapitalistan berezko duen baldintza soziala da, legearen eta langile klasearen beharren arteko bateraezintasunaren isla. Modu horretan, autoantolakuntza gure beharrian material zein politikoak asetzeko ezinbesteko bitarteko gisa ageri zaigu langileoi, eta Euskal Herrian horren adibide ugari aurki ditzakegu. Gaztetxeak, etxebizitza okupatuak, komunitate politikoak, eta abarrak termino hauetan kokatzen ditugun esperientzia antagonikoak dira, eta, ondorioz, etsaiak mekanismo errepresiboen bitartez kolpatzen ditu etengabe zaugarritasun egoerara kondenatuz. Guretzako eguneroko ogia dira desalojoak, argi eta ur mozketak jarduera ezberdinak aurrera eramateko trabak, mehatxuak, isunak, kriminalizazioa eta abar luze bat. Gure aurkako eraso bakoitzean geroz eta gehiago nabarmentzen zaigu elkar babesteko beharra. Elkarrekiko lehian oinarritzen den gizarte sisteman hil ala bizikoa zaigu klase elkartasuna ardatz izango duten babes sare eraginkorrak martxan jartzea. Burgesiak ezartzen dizkigun bizi baldintza miserableetatik babestea. Gune autogestionatu bat erasotzen dutenean langileria kolpatzen dutelako bere osotasunean. **ERRAKI** pauso bat gehiago da norabide horretan, langileon autoantolaketa ardatz duen erreminta politiko bat. Helburua, gune autogestionatuek modu isolatuan aurkitzen dituzten mugak gainditzea eta klase elkartasunaz euren burua defendatzeko mekanismo ezberdinez hornitzea da. Lan lerro ezberdinak garatuko ditu gune autogestionatuek izan ditzaketen beharrei erantzuteko, euren burua zentzu guztietan birproduzitzeko, baliabide ezberdinak eskuratzeko, etsaiaren oldarraldietatik babesteko. Legedi burgesak ezartzen digun ahultasun egoera estrukturalaren aurrean, desjabetuoi kolektiboki gure buruaren kargu egitea besterik ez zaigu gelditzen. Miseria eragiten duen bizi formatik haratago gure burua pentsatzea dagoldu. Etsaiak gure txoko bat erasotzen duen bakoitzean hor egongo gara, galtasun ezberdinak metatuz, elkarrekin indartuz, ezintasunarekin hautsiz. Elkar babesa antolatzeko garaia da. **BATU BORROKARA!**

Testu osoa / Texto completo: <https://www.boltxe.eus/2019/03/15/erraki-gune-autogestionatuen-babes-sarea-aurkeztu-da/> | [Boltxe](#)

Iraultza posible da

Urria gorriz markatutako hilabetea da komunistentzat.

Arteka, editoriala; 2020/10/01

<https://gedar.eus/arteka/iraultza-posible-da>

Urria gorriz markatutako hilabetea da komunistentzat, gure historiaren zati bat da, non gure ezagutza gehienak kondentsatzen diren. 1917ko urrian, gure egutegiaren arabera, proletalgoaren eta mugimendu komunistaren heldutasun-prozesuan atzeraezinezko etapa bat hasi zen, berehalako balantzeak porrota ondoriozta badezake ere, iraultzarako antolatzen denarentzat eta bere beharraren konbentzimendua duenarentzat, askatasuneranzko bide gogorrean urrats bat baino ez dena.

Errusiako iraultza ondoren etorriko ziren iraultzen pizgarria izan zen. Horietako asko ekialdean eman ziren, non, garapen historiko atzeratuak, nazio zapalduen garapen askea eragozten zuen inperialismoaren uztarri politikotik askatzeko mugimenduak sortarazten zituen. Hein batean, Urriko Zikloan gertatutako iraultza gehienak askapen nazionalari estuki lotuak egoteagatik bereizten dira, baita berezkoa duten klasearteko osagaiagatik eta/edo osagai herrikoia ere, ondoren baldintzatuko zituen ezaugarria, porrotera eramanez. Gainera, horien guztien izendatzaile komuna da Europatik kanpo garatzen direla, non, *a priori*, eta subjektibotasun politikoa bigarren maila batean uzten duten formula mekanizista xamarren arabera, iraultzaren baldintza objektiboak onuragarriagoak diren. Hori, hala ere, ezin da ulertu garapen historikoarekin batera subjektuari aukerak irekitzen zaizkiola defendatzen duen kontzepzioarekiko mespretxutat, politika beti ekonomiaren arrazionaltasun objektiboaren atzetik datorrela eta azken hori gabe dena ezinezkoa dela defendatzen duen kontzepzioarekiko mespretxutat baizik. Ulertu behar baita ekoizpen-indarren garapenean lanaren indar subjektiboaren garapena eta haren antolaketa politikoa barnebiltzen direla, eta ez dela, beraz, makinariaren teknologia zientifikoaren garapen soila.

Ekonomiaren bilakaera katastrofistari aurrea hartuz soilik egin dezakegu politika; edo politika arrazionaltasun ekonomikoaren marjinetatik kanpo sortzen dena baino ez da. XX. mendeak zerbait erakusten badu, aurkakotasun horren inguruan ematen den harremana da. Batetik, politikaren beharra, errealitateari aurre egiten dion eta ekonomiaren adierazpen soila izateari uko egiten dion subjektuarena. Bestetik, fikzio politikoaren gainean eratzen den subjektuaren ezintasuna, izan ahal izateko aurkakotzen duen hori izatera kondenatzen duena. Azken batean, boterea hartzeko une politiko gisa ezaugarritzen den iraultza, eta subjektu iraultzailearen oinarri diren aurrekariak eraldatzen dituen indar sozial gisa ezaugarritzen den iraultzaren arteko harremana.

Alderdi Boltxebikea, Leninek gidatua, politikaren estrategia handi bat izan zen, eta politikaren, hau da, askatasun grinek eragindako bultzada iraultzailearen, nagusitasunaren adibide garbia. Inoiz ez zen baldintzarik gabe garapen ekonomikoaren gertaera objektiboaren mendeko izan, eta beti iraultzaren indar bultzatzaile gisa jardun zuen, gizartearen eraldaketa sozioekonomikoan oinarritutako iraultza soziala gauzatzeko. Horren adibide da nazioen autodeterminazio-eskubidearen auzian defendatutako politika irmoa, zeinaren bidez, beste komunistak batzuek egin zuten bezala, lotura nazionalak gero eta estuago bateratzeko joera ekonomikoa ikusle soil bat bezala onartzera etsi beharrean, ekonomizismo horri aurre egin zioten eta proletalgoaren politika abangoardistaren boterea alda-

rrikatu zuten, bere nazioarteko batasuna ez gertakizun saihestezin bat gisa, baizik eta bereziki, posizio desiragarri bat gisa, ahalbidetuko zuen demokraziaren alde.

Iraultza askatasun-ekintza bat da, non proletalgoak historiaren produktu izateari uzten dion, historiaren produktore bilakatzeko; iraultza politika azaleratu eta objektibotasun sozialaren menderatzaile egiten duen bitartekoa da; politika da historiaren aurka. Iraultzaren eztanda politiko hori gabe, matxinadaren bidez proletalgoak boterea hartu gabe, pentsaezina da iraultza bera. Iraultza politikoaren eta iraultza sozialaren batasun banaezina komunistontzat auzi kardinala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Eta, batez ere, iraultza politikoaren nagusitasuna iraultza sozialaren prozesuaren gainean, politikaren baldintza errealitate soziala eraldatzeko.

Leherketa iraultzailerik gabe eta Alderdi Komunistan eraturako proletalgoaren matxinadarik gabe, ezinezkoa da errealitatea eraldatzea, eta kapitalismoa suntsitzea. XX. mendean gertatutakoarekin bat ez datorren egoera historiko baten suposizioa baliatuta, gaur egun iraultza antolatzeke eta matxinadaren bidez boterea hartzeke beharrari uko egiten diotenak, sozialismoa eta politika baztertzeko ari dira, erreformismoaren lerroetan erortzeko.

Errusiako proletalgoaren matxinada ez da munduko gerra-egoerarekin lotutako baldintza historiko berezi bat, burgesiaren diktadura antolatuta dagoen edozein lekutan, proletalgoari, errealitatea eraldatu ahal izateko, inposatzen zaion bidea da. Funtsezko konkista horretatik kanpo planteatzen den jarduera oro ezin da, inola ere, jarduera iraultzailetzat hartu. Izan ere, lurralde baten gaineko kontrol politikoak soilik ahalbidetzen du bertan ordena berri bat ezartzea eta etsaiaren erasoetatik defendatzea.

Ezin da, hala ere, subjektu iraultzailea ideologia hutsaren gainean eratu. Bere izaerak objektiboa izaten jarraitzen du, baina orain subjektu horrek du bere existentziaren baldintza objektiboen gainean gobernatzeko ahalmena. Botere hori eraginkor bihurtzea da auzia, eta errealitate soziala iraultzea, hau da, subjektu iraultzailearen existentzia-baldintzak iraultzea, subjektua bera alferrrikakoa egiteraino, eta menderatze politikorako indar oro suntsitzeraino. Lehenik, emandako baldintzen aurka ez borrokatzeak subjektua gauzen egungo egoeran berrintegratzen duelako, bere arrazionaltasunean deseginez. Bigarrenik, indarrean den egoera delako azkenean subjektua menderatzen duena, bere baitan integratuz eta politika objektibotasun sozial arrazionalizatuaren mendeko eginez. Azken horren adibide da burokrazia, Alderdian integratzen dena, ekoizpen-esparru desberdinetan zuzendaritza-postuetarako sarbide gisa instrumentalizatuz eta figura hori prozesu sozialaren zuzendaritza objektibo gisa betiketuz, politika gainbalioaren ekoizpen kapitalistaren planifikazioaren kudeaketa burokratikoan desegiteraino.

Bada, urritik bi ikasgai atera nahi genituzke, bata zentzu positiboan, bestea negatiboan:

1) iraultza posible da, 2) hau, ezinbestekoa egiten duten premisak iraultzean datza. Bi alde horiek bildu nahi izan ditugu ale honetan, bai ikuspegi politikoa aztertzen, nazioen autodeterminazio eskubidearen inguruko erreportajearekin, iraultzan sinesten zuten, eta egin daitekeen modu bakarrean -hau da, etsi gabe eta politika egiten- antolatu eta bultzatzen zuten boltxebikeen aktibitate politikoan zentrala izan zena; eta baita ikuspegi soziala aztertuta ere, babes soziala gai duen erreportajearen edota lanaren soziologiaren inguruko kolaborazioan jasotzen den bezala.

«ITAI A antolakunde bihurtzeko hautua egin dugu»

Arteka, 2020/11/14

<https://gedar.eus/arteka/itaia-antolakunde-bihurtzeko-hautua-egin-dugu>

Emakumeon Antolakunde Sozialista aurkeztu zuten pasa den urriaren 20an, «zapalkuntzarik gabeko gizartearen eraikuntzaren bidean, emakume langileen askapena gorpuztea» helburu. Helburu hori lortu ahal izateko, beharrezkotzat jo dute emakume langileak jasaten duen zapalkuntza zehatz bakoitza identifikatzea eta horrek egitura ekonomiko kapitalistaren baitan zein funtzio betetzen duen aztertzea, modu horretara, zapalkuntzari aurre egiteko bitarteko politikoak garatuz. Garai ilunak etorriko direla eta, ITAI A «antolakuntza politiko sozialistarako hautua» egin du.

ITAI Aren sorreratik bi urte pasatu ostean, antolakuntza forma berria hartzearekin batera, eskualdez eskualde emakume langileen babes antolatzeke erabakia hartu dute ITAI Ako kideek. «Emakume langileen emantzipazio erreala antolatzeke aukera bakarria harreman eredu sozialistaren eraikuntza delako». Horretaz eta gehiagoz hitz egin dugu jarraian duzuen elkarrizketan Ainhoa Vidal eta Nadia Perez ITAI Ako kideekin.

Bi urte pasa dira jada 2018ko udazken hartatik. Genero problematika langile izaeratik eta perspektiba integral batetik aztertzeke tresna jarri zenuten mahai gainean. Blog izaera hartu zuen hasiera batean, arrazoia Euskal Herriko egoera politikoan lekurik aurkitu ez izana.

A.V. Euskal Herriko hainbat txokotako emakumeok auzia hausnartzearen ondorio izan zen ITAI Aren bloga. Gure artean emandako eztabaidak maila publikoan sozializatzeko beharrak eraman gintuen bloga martxan jartzera, eta hasieratik gure helburua jada mahai gainean zeuden eztabaidetan ekarpena egitea eta eztabaida berriak plazaratzea izan zen, problematika konkretu honi erantzun eraginkorra emateko asmoz.

Emakumearen auzia lantzen duen mugimendu nagusia, feminismoa, munduan garrantzi berezia hartu duen mugimendua izan da azken urteetan eta argi ikusi da, errealitate konkretuaren ondorioz, mobilizaziorako gaitasun handia izan duela. Aldiz, aldaketa erreallak lortzeke proposamenen hutsunea sumatu dugu eta egoera politiko horretan, ideia berriak zabaltzea izan dugu helburu. Guk arazoa ez dugu feminismoan soilik kokatzen, azken hamarkadetan ezker mugimenduaren sektore zabalen norabide ezean baizik, eta ondorioz, horiek mahaigaineratutako planteamenduetan. Eta egoera horretan, argi daukagu feminismoak forma autonomoak hartu baditu ere, ezker mugimendu askoren oinarri zentral bilakatu dela. Feminismoa elikatzen duten eskola teorikoek ez gaituzte ase, eta beraz, horien planteamendu estrategikoak ere gure proposamenarekiko ezberdinak dira. Horrek ez du esan nahi maila taktikoan borroka batzuetan bat egingo ez dugunik, baina horiei egingo diegun ekarpen teorikoa eta emango diegun norabide estrategikoa ezberdinak izango dira.

N.P. Feminismoa «emakume eta gizonen arteko berdintasunerako» mugimendu gisa ulertzen bada ere gizartearen, mugimendu politiko moduan printzipio politiko garbiak

ditu, nahiz eta bere barnean hainbat korrante biltzen dituen. Problematika femeninoa patriarkatuaren baitan kontzeptualizatzen da, hau da, bizitza sozialaren aspektu autonomo gisa ulertzen da, nahiz eta hori beste zapalkuntza eta errealitate batzuekin intersekzioan ulertzen den. Horrek ondorio politikoak ditu: gainditu beharreko botere estruktura patriarkal autonomoa identifikatzen da, eta beraz, «emakumea» orokorrean definitzen da borroka subjektu gisa. Guk aldiz, bizi dugun errealitatearen analisisa eginda, zapalkuntzak dominazio burgesaren parte gisa ulertzen ditugu, hau da, esplotazioaren forma zehatzak dira, gizarte kapitalistaren helburua den kapital metaketara azpiratuak ageri diren dominazio formak. Ondorioz, alde batetik, kapitalismoa bera gainditzeak soilik jarriko ditu zapalkuntzak gainditzeko baldintzak. Bestetik, zapalkuntza pairatzen duen subjektua emakume langilea da, nahiz eta horren ondorio sozialek emakume guztiei eragin diezaieketen. Beraz, borroka subjektua langile klase osoan kokatzen dugu, hori baita sistemarekin bukatzeko potentzialitatea duen subjektu bakarra.

Testuinguru orokorra analizatzen badugu, argi dago krisian oinarritutako ziklo ekonomiko berri bat bizitzen ari garela, eta horrek ziklo politiko berria irekitzeko aukera mahaigaineratzen du. Egun ez dira gauzatzen aurreko hamarkadetan zentroko herrialdeetan garatutako aukera ekonomikoak; orain, baldintza ekonomikoen beherakada momentua bizi dugu, proletarizazioa. Argi ikusten ari gara gure bizi baldintzak ez direla gure gurasoenen pareko izango, eta horrek posizio politiko berrietarako aukera ireki du. Printzipio politikoen berdefinizioa gertatzen ari da, langile mugimenduaren historiari loturik daudenak, baina modernizazio propioa dakartenak. Horri erantzuten dio Mugimendu Sozialistak.

Ezin uler daiteke ITAIAREN ibilbidea Mugimendu Sozialistaren beraren garapena kontuan hartu gabe. Zein da ITAIAK prozesu sozialistaren baitan duen tokia?

N.P. Esan bezala, Mugimendu Sozialistaren garapena eta ITAIARENA guztiz lotuak doaz, eta ezin ditugu modu apartekoan ulertu. ITAIAK ez luke zentzurik izango esplotazio eta zapalkuntzarik gabeko gizarte eredu baten eraikuntzarako helburua duen batasun estrategikoa gabe, eta hain justu, horixe da Mugimendu Sozialista.

A.V. Zentzu horretan, gizartearen osotasunaren analisisa egin eta bere dominazio forma aztertzen badugu, argi identifikatu daiteke esplotazioak eta zapalkuntzek betetzen duten tokia, zeri erantzuten dioten eta zein ondorio dituzten gizartean. Langile klasearen barneko subjektibitate andana sortzen dira dominazio kapitalistaren ondorio, banaketa sozial eta politikoa eraginez. Baina era berean, horrek aditzera ematen du zapalkuntza orok zergati bati erantzuten diola kapitalismoan, hau da, funtzio bat betetzen dutela eta beraz, zapalkuntzekin amaitzeko forma sistema bera gainditzetik hasten dela. Logika horretan, emakume langilearen zapalkuntza zentrala bilakatzen da kapitalarentzat, eta ITAIAK horri erantzun nahi dio. Emakume langilea kapitala gainditzeko hautua egiten duen antolakuntza formara lotzeko lana da gurea, hau da, emakume langilea aktibo militante bilakatu eta klase borrokara batzea dugu xede. Horretarako, beharrezkoa da emakume langileon bizi baldintzen hobekuntzarako jarduna garatzea, hala militantzia gaitasunak sortu eta bermatu ahal izateko.

Antolakunde izaera hartu berri duzue. Lehen urteurreneko adierazpenean esan zenuten jada, bazitekeela atari digital izaerak bere mugak laster topatzea. Hala dirudi beraz, esan bezala, antolakunde bihurtzeko pausua eman baituzue emakume langilearen zapalkuntza formei aurre egiteko.

N.P. Hasieratik izan genuen argi ITAIAren jardun ideologikoa emakumeon askapen prozesuaren momentu bat besterik ez zela, konstantea izango dena, baina ez bere osotasuna. Aldiz, auziari aterabide eman nahian eta proposamen eraginkorrena garatzea helburu izanik, beharrezkoa izan dugu momentu teoriko hori garatu eta gizartean sozializatzea.

Orain, ordea, denbora pasa da, gure ideiak ere gero eta garatuago ditugu eta era berean, momentu historikoak pausu kualitatibo bat emateko urgentzia mahaigaineratu digu. Kapitalaren berrantolatzen ari den testuingurua honetan, langileon bizi eta lan baldintzak etengabe doaz okerrera, eta emakume langileon egoera oraindik ere lazgarriagoa da: lan-harreman prekarioenak bizi ditugu, biolentzia dago gure egunerokoan, daukagun lan kargak isolamendu sozial eta politikora kondentzen gaitu... eta orain, hori guztia areagotzen ari da. Horren adibide izan da konfinamenduko hilabeteetan bizi izan duguna.

A.V. Egoera horretan, ITAIA antolakunde bihurtzeko hautua egin dugu, emakume langileon askapen prozesuan ekarpena egiteko asmoz, ditugun gaitasun guztiak eskualdez eskualde antolatzen joan gaituzen. Modu horretan, gure lanketa testuingurura egokitu eta indarrak biderkatzea dugu helburu, zapalkuntzaren fenomeno bakoitzari ahalik eta modu positiboenean erantzuteko.

Berriki hartu baduzue ere antolakunde izaera, hausnarketa teorikoaz harago, komunitatea eratzeke hainbat jardun ere eraman dituzue aurrera. Tartean, Emakume Sozialisten Topaketak egin zenituzten iaz, Azpeitian. Zein izan dira prozesu horretako irakaspen nagusiak?

A.V. Urte hauetan garaturiko jardun ideologiko horrek gure eztabaida eta hausnarketen espazioak ireki eta ahalik eta zabalenak izatea eskatu digu. Horretarako beste tresna batzuk sortu ditugu, hala nola formakuntza espazioak, material didaktikoak eta besteak beste, aipatu duzuen moduan, Emakume Sozialisten Topaketak. Garrantzia berezia izan zuten pasa den urtean antolatutako topaketa horiek, alde batetik, gure tesietan lanean dabilen jendea elkartu eta eztabaida bateratuak egiteko aukera izan baikenuen, eta horrek ekarpen esanguratsuak izan baitzituen. Bestetik, jende berriarengana hurbiltzeko aukera eskaini zigun, eta hala, guztion artean eztabaida teoriko-politikoak izateko aukera izan genuen. Beraz, balorazioa oso positiboa da; bide berriak ireki zizkigun lanerako eta horiek indartzen jardun dugu geroztik. Azken asteetan ikusi dugu horren emaitza.

Ildo horretatik, asko hitz egin da azken urteetan martxoaren 8aren ondorengoz eta laugarren olatu feministaz. Horren aurrean, iazko martxoaren 8an emakume langileak subjektu politiko bilakatzeko antolakuntza tresnak martxan jartzeko beharra azpimarratu zenuten horren gainetik. Eskualdez eskualde ikusi da harrera ona izan dutela aurkezpenek. Zer balorazio egiten duzue?

N.P. Aurreko urteetan ere izan dugu hainbat eskualdetan hitzaldiak egiteko aukera, eta erantzuna orokorrean oso ona izan da. Aldiz, aurkezpen hauek benetako garrantzia zeukaten, jendea gure posizioak entzuteko prest dagoela adieraztetik haratago, benetan horren aurrean proposatzen dugun antolakuntza eta planteamendua aditu eta hausnartzeko prest dagoela adierazten baitu. Testuinguru ekonomiko-politiko honetan,

gero eta gehiago gara egoera honi aurre egiteko antolakuntza sozialista lehentasunezko eginbehar definitzen dugunok.

Gainera, aipatzekoa da bizi dugun testuinguru nahasian, alarma egoeran, pandemiaren izuarekin, aurkezpenetara hurbildu den jende kopurua izugarria izan dela eta horrek hausnarketa positiboak egitera garamatza. Hemendik aurrerakoan baloratu beharko dugu, esan bezala, zein den horiek antolatzeke daukagun gaitasun erreala, hau da, jendea gure dinamiketara batzetik edo bertara mobilizatzeke haratago, zer aukera dugun haiek politikoki guregana binkulatzeke.

Mahai gainean dauden hipotesiak dira krisi kapitalistaren bizkortzea, ekoizpen prozesuen berrantolaketa eta gizarte eredu autoritarioa. Nola txertatzen da bertan emakume langileen problematika eta zer proposamen dituzue esku artean?

A.V. Aipatu bezala, krisi testuinguruan gaude, kapitalaren berrantolatze fase batean, historikoki lanaren gaineko esplotazioaren berrantolaketaren bidez ordaindu dena. Horrek langile klase osoaren bizi eta lan baldintzen beherakada dakar, eta gizarte eredu gero eta autoritarioagoak eskatzen ditu. Era berean, horrek langile klase gero eta proletarizatuagoa otzan edukitzeko kontrol soziala areagotzea dakar.

Emakume langileon egoeran oso argi ikusten ari gara, eta konfinamendu garaian begi bistakoa izan da: orokorrean lan harreman prekarioenetakoak bizi ditugun subjektu bagera, krisi testuinguruan oraindik ere forma lazgarriagoan biziko dugu langabezia orokortua, behin-behinekotasuna edota lanaldi partzialen gorakada. Pobrezia estrukturalera kondenatuta gaude, lan harreman forma horiek hori baitakarte, bizitzeko beharrezko ditugun baliabideen kontsumorako ezintasuna. Gainera, emakumeok asistentzia zerbitzu forma guztien lehen lerroan gaude, bai etxeko lanetan, bai lanbide sektore eta zerbitzu feminizatuenetan. Horien berme sozialaren mugak horien merkaturatze eta pribatizazioa dakar. Pribatizazioa bi formatan ulerturik, bai zerbitzu horien gestio pribatu edo kontzertatuan eta baita, etxe girora buelta, izaera pribatua emanez. Hori noski, emakume langileon lan kargara gehituko da. Eta egoera horretan, dependentsia ekonomiko eta isolamendu sozial eta politikoan, gizartean areagotuko den izaera biolentoaren lehen lerroan ere izango gara, gure azalean biziko baitugu hori guztia. Emakume langileon bizi eredu, langile klase orokorrarena bezala, miseriara kondenatua dago eta horri erantzun bat emateak sekulako premia dauka.

N.P. Emakume langileon zapalkuntzak betetzen dituen funtzioen neutralizaziorako borroka izan behar du gureak; ITAIAK garatuko duen jardunak egunero bizi ditugun zapalkuntza fenomeno orori erantzuna emateko ahalegina egingo du, eta ditugun gaitasunen arabera espazio guztietan garatzen saiatuko gara. Konkretuki orain, azaroaren 25aren bueltan, bizitza biolentoen aurreko lanketa egiten ari gara, eta horretarako indarkeria matxista osotasunean kokatzen dugu, haren erroa seinalatzen dugu eta erantzunak emateko mekanismoak garatzen ari gara. Eta hemendik aurrera ere horretan jardungo dugu, egunerokotasunean ageri diren fenomenoaren aurreko erantzunetarako mekanismo onenak bilatzen eta garatzen, prozesu sozialista elikatzea helburu izanik.

Euskal Herriko Mugimendu Sozialista

Komunismoa helburu

[Xabier Letona Biteri](#) (@xletona)

2022ko urtarrilaren 23a

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2763/euskal-herriko-mugimendu-sozialista>

Oso gaztea da, sehaskatik atera berria, baina sustrai ideologikoak iraganean ondo errotuta ditu Euskal Herriko Mugimendu Sozialistak, eta etorkizunari irmo eta seguru begiratzen dio. Seguruegi akaso? Denborak esango du, baina ez du txantxetako helmuga: mundu mailako ezkerreko tradizio luze eta korapilatsuaren lorratzari segika, komunismoa eraiki nahi du Euskal Herrian eta munduan; haien ustez, munduan ez bada, Euskal Herrian ere ez baita izango.

Gazte Koordinadora Sozialista ([GKS](#)) da Mugimendu Sozialistako erakunderik indartsuena, 2019an sortu zen eta haren zein aurretikoen testuek, 80ko hamarkadaren hasieran etxean irakurtzen nituen anaia nagusien Marta Harnecker eta gisako literatura gorriaren tankera gordina zuten. Galdera berez erori zen: baina posible ote igaro mendean porrot egindako tradizioaren haritik tiraka, orduan bezain berdintsu tiraka gainera, XXI. mendean norabait iristea? Hastapeneko burutazioak gisa horretakoak ziren norbere baitan. Hotzean pentsatuta, ostera, pentsamendu hori gauzatzea gaur atzo bezain gaitz dela ondoriozta liteke, eta ideioek, hain zuzen, mugimenduko kideen indarguneetako dira gaur egun. Egungo kapitalismoaren bilakaerak, Euskal Herriko borroka armatuaren ondorengo egoera politikoak, eta azken urteetan borroka ideologikoari eman dioten garrantziak izango dute zerikusirik mugimenduaren gorpuztean.

Lehenengo urratsean, batek pentsa dezake Mugimendu Sozialista Ezker Abertzalearen 2011ko paradigma aldaketaren ondoren sortutako sigla zaparradaren bueltako beste bat gehiago dela. Eta hori ere bada, baina hurbildu ondoren, arretaz eta begirunez begiratzeko moduko hainbat zantzu ere ageri ditu: darabilten diskurtsoa zaharkitua iruditu arren, etorkizunera begiratzen duen gorputz ideologiko landua antzematen da; antolaketa sendoa; lan handia eta euren proiektuaren alde borrokatzeko jarrera irmoa; eta talde sozio-politiko moduan kopuru aldetik oraindik indartsua ez bada ere, bere inguruan sistemarekiko desadostasun erradikalaren multzo bat biltzeko gaitasuna erakutsi du.

Usain zaharreko zerbait berria da, azken hamarkadetako euskal politikan ikusi ez duguna behinik behin, XX. mendeko komunismoaren errautsetatik XXI.ean hegaldatu nahi den ikuspegi bisionario, askatzaile edo utopikoa garatzen duena, begiratutako betaurrekoren arabera. Eta gehiago hurbildu gara, hobeto ezagutu eta azaldu guran. Erreportajea egiteko [Gedar webgunea](#), [Gedar Telebista](#) eta *Arteka* aldizkarian murgildu gara, mugimenduaren *Pravda* modernoetan. Mugimendu Sozialistako Beñat Aldalur azpeitiarrarekin ere hitz egin dugu. Bistan da komunikazioari garrantzi handia ematen diotela, haien egia haien erara gizarteratu nahi dutela, gizarteko gainerako korrante politikoek egiten duten bezala; egia esan, kazetari honen esperientziatik begiratuta bederen, kontraesankorra ere badirudi, haiekin hitz egitea lortzea ondo kostatako zeregina izan delako.

ETA-ren amaiera

2011n ETAk borroka armatuaren amaiera iragarri zuenean hasi ziren egungo sugar hauen lehen txinpartak aireratzen. Ezagunak dira ezker abertzalean prozesu hark sortu zituen tentsioak. ENAMeko lemazain berriek norabidea aldatu zuten, baina desadostasun guztiak ez ziren atzean geratu. Ondorengo urteetan hasi eta gaurdaino talde eta korrante txiki ugari garatu dira: Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimendua, Askatasunaren Bidean –desagertu zen–, Jarki, Jardun, Herritar Batasuna, Hauspoa, Eusko Ekintza (ANV-EAE)... eta Mugimendu Sozialistako sigla eta izen saltsa ere hor dago.

[Borroka Garaia da!](#) bloga izan zen ezker abertzaleko disidentziaren bozgorailu esanguratsuena. Egungo Mugimendu Sozialistako hainbat kideren testu eta hausnarketa ugari batu zituen blogak. Blog hartako eztabaidetan eta ikasle mugimenduan hazi ziren arbolaren lehen sustraiak. Ikasle Abertzaleak (IA) erakundea nork kontrolatuko, talka egin zuten ezker abertzaleko gazteen bi ildo nagusiek, eta [2018an Ernaik iragarri zuen](#) IArekiko loturak apurtuko zituela eta hezkuntzan bere kabuz ekingo ziola lanari, ondoren Ikama sortuz.

Beñat Aldalurren esanetan, haiek ere ezker abertzalearen esparru soziologiko zabal horretatik datoz nahitaez, eta Mugimendu Sozialistaren hedapena oraindik mugatua dela aitortzen du: “Lan ideologikoa medio, orain arte gai izan gara soziologia unibertsitarioko esparruetara iristeko, kezka politiko eta intelektuala duen hainbat jende bildu dugu, baina oraindik ez gara proletariora iritsi, hau zentzu orokor batean hartuta, eta zeregin hori pixkanaka egiten ari gara. Hori da gure erronka”

ENAM-ekin apurtu

Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren (ENAM) eremu soziologikotik datoz, eta Euskal Estatu Sozialista dute helburu, baina argi utzi nahi dute ezker abertzalearekin apurtu dutela, eta ez dutela zerikusirik haren tradizio historikoaren segida izan nahi duten beste talde txikiagoekin ere. Iragan azaroko *Artekan* ozen azaldu zuten apurketaren nondik norakoa, "ENAMen porrot historikoaren" analisi zehatza eginez. Gedar-ek sinatzen duen *Berdinketaren amaiera: Estatuaren behin betiko ofentsiba* erreportajea, 2007tik 2011ra Ezker Abertzalearen baitan izandako mugimenduak miatzen dira. Koiuntura politikoa aztertuz, halaber, Aitor Martinezek *Ezker Abertzalearen porrot historikoaren ondorioak* jorratzen ditu:

“Hamarkada hauetan behera egin duena ez da grina eta borondate iraultzailea izan. Desagertu dena programa iraultzailerik gabeko itxurakeria iraultzailea izan da, hau da, sozialdemokrazia iraultzaile gisa azaltzea ahalbidetzen zuen testuingurua. Horri deitu izan zaio krisi kapitalistaren ondoko politika burgesaren krisia, zeina modu gordinenean agertzen den sozialdemokraziaren haragitan. (...) Erronka berdina dugu esku artean; azken hamarkadetan proletalgoak izan duen erronka berdina. Abiapuntua hasierako berdina da: porrot egin dugu, komunismoa sistematikoki baztertua izan da Ezker Abertzalearen baitan. Orain hasiera berri baten aurrean aurkitzen gara, baina oraingoan hori ez da soilik posizio etiko bat”.

Aldizkari berean mugimenduko hiru gaztek “Ezker abertzale ofizialarekiko” apurketa horretan sakontzen dute, besteak beste, desenkontu batetik eraikuntza politikorako urratsa eman dela azpimarratuz. Aingeru Otxotorena, Dorleta Agiriano eta Isaak Ziaurriz Ernain eta IAn hasi ziren, eta azken hamarkadan Ezker Abertzaleak

eramandako ildoaz oso kritiko hitz egiten dute. “Gero eta nabarmenagoa zen ‘ofizialismoak’ Estatuan integrazteko eta instituzio nahiz legalitate burgesetatik eragiten saiatzeko egin zuen apustua (...) bazirudien ezin genuela jada iraultzan sinetsi”, dio Agirianok. Desadostasunak hainbat esparrutan ikus zitezkeela azpimarratzen du Otxotorenak: “Mobilizazio ereduak, Sorturekiko erabateko obedientzia, borroka parlamentarioari gehiegizko garrantzia ematea, interklasismoa, amnistiaren afer...”.

Ideen garapena luzeagoa bada ere, ENAMen porrota azalduko luketen hainbat puntuz mintzo zaigu Beñat Aldalur. “Denborari dagokionez, Sobietar Batasunaren amaierarekin batera egon zen nazio askapeneko mugimenduen gainbehera hor dago. Espazioa oinarri hartuta, horietako prozesu askok izan zuten arrakasta, baina azpigaratutako herrialdeetan, periferian. ENAMen interklasismoarekin ere kritiko izan gara, aliantza horretan burgesia txikia nagusitu zelako eta ez langileria. Baita etapismoarekin ere, hau da, lehenik independentzia eta gero sozialismoa. Gure ustez, nazio auzia eta soziala ez dira bi prozesu ezberdin, programa sozialistaren parte izan behar dute, eta gainera, prozesu hori zentzu internazionalista batean ulertuta, prozesu zabalago baten parte izan behar du”. Hala ere, Europan zerbait bai, baina aitortzen du oraindik ez dutela harreman handirik munduko beste eragile komunistekin.

Eta errepasso historiko horretan, zehazten du beste hipotesi batzuk ere ari direla lantzen: “Adibidez, ETAREN estrategiak iraun zuela naziotasunak indar handia zuelako. Borroka horrek iraun badu, izan da borroka armatuak berak sortzen zuen atxikimenduagatik, ez estrategikoki asmatu zelako; ENAMek bere burua erreproduzitzeko gaitasuna zuen. Hala ere, ENAM ez zen gai izan prozesu iraultzaile zabala lortzeko. Begiratu behar da zergatik ez zen gai izan oraindik ere jende gehiagorengana iristeko, bestelako botere eredu bat sortzeko”.

Lehentxeago aipatutako *Arteka*-ko erreportaje zabala hala amaitzen da: “Klaserik gabeko Euskal Herriaren alde modu desinteresatuan bizitza eskaini duten militanteekiko eta proiektu emantzipatzailearekiko begirunez, kritika eta diziplina dira XXI. mendeko militante komunistaren betebeharrak etikoak. Aurrekoen akatsen eta ekarpenen identifikazioak balio dezala batzen gaituen ortzi-mugara hurbiltzeko”.

Proiektu komunistaren porrotaz

Zergatik egin zuen porrot XX. mendeko proiektu komunistak? Aldalurrek hainbat faktore mahaigaineratzen ditu, kritika orokor gisa: “Ezin da pentsatu bakarrik AEBen hegemoniatatik egin zuela porrot, barne arrazoietara ere begiratu behar da. Adibidez, une historiko batzuetan –XIX. mende bukaeran edo XX.eko hasieran– langile klasea sozialismoarekin parekatzea lortu bazuten ere –gaur egun ez da identifikatzen proletariotza eta sozialismoa–, prozesuak batez ere politikoak izan behar ziren sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa tinkatzea lortu ez zuten heinean. Hau da, estatu aparatuek hartu ziren, baina ez zen finitu gizarte ereduaren eraldaketa osoa. Ez zegoen teoria garbi bat sozialismoa prozesu gisa ulertzeko. Estatua hartzen da eta gero malabarak egiten dira hau mantentzeko. Orduan estatuak jan egiten zaitu. Ondorioz, denborarekin burokratizazio prozesuak ematen dira, elite eta elite ez direnen arteko banaketa, eta berriz kapitalismora itzultzea. Orain argi ikusten dugu prozesu politikoak eta ekonomikoak batera joan behar dutela, adibidez soldataren logika gainditzeko. Prozesu sozialista batek soldataren diziplina gainditu eta hortik harago begiratu behar du.

Baina bere garaian Antonio Gramscik aipatu zuen bezala, estatuaz gain, hor da kultur hegemoniaren gaia ere, eta Mugimendu Sozialistarentzat hori esparru klabea da. Hau da, Aldalurrek azaltzen duen gisan, “ideologia kapitalista guztiz dominantea den proletariotzaren barruan, pentsatu behar da –eta Gramscik erremintak ematen ditu horretarako– zein tekla eta zein esparru ukitu behar diren, eta borroka prozesuak kulturalki nola baliatu behar diren. Bizi ikuspegiei buruzko guda kulturala ematea, beraz, lehentasunetakoa da guretzat”. Eta hala ere –dio mugimendu sozialista honetako ideologoetakoa den eta *Kolitza* moduan sinatzen duenak *Artekan*–, prozesu kultural horietan ondo asmatuta ere, beti izango da ezinbestekoa “formazio sozial burgesari eragiten dion faktore erabakigarria: kapitalismoaren metatze krisia, gaur egun mendebaldeko langile masen bizitza kalitatean galera geldiezina dakarrena”.

Mugimendu sozialistaren antolaketa-esparrua

Une historikoren batean proletariotzak lehiatu beharko dio estatua burgesiari, hori Alderdi Komunistaren bidez egingo du, baina bitartean Mugimendu Sozialistako erakundeei dagokie horretarako baldintzak sortzea. Ez da kontua alderdi komunista bat alderdien erregistroan sortzea eta kito, horretarako baldintzak daudenean sortuko da Alderdi Komunista. Beraz, gizartean eragitea dagokio Mugimendu Sozialistari eta azken bi urte hauetan hainbat tresna sortu ditu horretarako.

Gazte mailako GKS da ezagunena eta aktiboena, baina beste batzuk ere badira: [Itaia](#) emakumeen antolakunde sozialista, kultura eta artearen munduan [Ekida](#), gaztetxe eta okupazioaren eremuan [Erraki](#), hezkuntzan Ikasle Abertzaleak, eta hedabideen alorrean Gedar, Gedar Telebista eta *Arteka* hilabetekaria. *Arteka* euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da, eta Gedar.eus euskaraz egiten da. Hori ere bitxia egiten da, euskal nazio edo identitateaz ezer gutxi irakur daitekeen hedabideetan, euskara nagusi da. Aldalur naturaltasunez mintzo da gaiak: “Hizkuntza tresna bat da guretzat, orain arte euskara erabiltzen dugu nagusiki, baina lurraldearen arabera – zonalde erdaldunak badira– erabiliko dugu gaztelera edo frantsesa, euskararekin batera. Komunismoan hizkuntzak, euskara adibidez, humanitatearen ondare izango dira, ez gurea bakarrik; eta testuinguru horretan, munduko hizkuntza guztiak garatu ahal izango dira”.

Orain, Kontseilu Sozialistak

Egungo abagunean tresna garrantzitsuena eta zentrala dena ere sortzen ari dira, orain arte aipatutako guztiak koordinatu eta akuilatzeke: Kontseilu Sozialistak. Proletariotzaren iraultza gidatzeko erreminta zehatzak lirateke, lurralde eta sektoreetan “hazkunde mugagabea izango duten Alderdi-zelulak”, *Kolitza*-ren arabera.

Kontseilu hauek sobieten gisakoak dira eta haien lana izango da komunismoa eraikitzea, hau da, *Kolitza*-k 2021eko urtarrileko [artikulu batean dioenez](#), “klaserik gabeko gizarte unibertsal baten programa historikoa, non gizateria osoaren ondare baitiren askatasun politikoa, ongizatea eta aberastasuna (...) Laburbilduz, –diosku *Kolitza*-k, eta komeni da arretaz irakurtzea– kontseiluak demokrazia proletarioaren administrazio-zelulak dira eta militante sare komunistaren hazkunde proportzionalerako fronte zein borroka zehatzak artikulatzeko, proletariotza iraultzaileak prozesu sozialak kontrolatzeko eremua pixkanaka zabaltzeko eta Alderdi Komunista mundu mailan berreratua izango den ofentsiba fase batean proletariotzaren sektore ezberdinetan eta konpromiso maila ezberdinekin komunismoa gero eta gehiago nagusitzeko zeregin berehalakoa dute”.

Aldalurrek dioskunez, Euskal Herriko eskualdeen erdietan dagoeneko badira Kontseilu Sozialistak, baina gai gehiago ere landu nahiko lukete, esaterako "gune sozialisten edota etxebizitzaren auzia, askatasun politikoen aldeko eta errepresioaren aurkako borroka, auzi laborala eta oinarrizko bizi baldintzen esparrua". Bide batez, kontseiluetan adin guztietako militanteek parte hartzen dute, orain arte, batez ere gazteak aritu baitira Mugimendu Sozialistako erakundeen jardueran. Euskal Herri osoko mugimendua izan nahi du eta [Ipar Euskal Herrian](#) iragan urrian sortu zuten Kontseilu Sozialista. Gipuzkoako Urola Erdian eta Goierrin, eta Nafarroan Iruñerrian eratu dituzte orain arteko kontseilu indartsuenetakoa.

Aliatuak eta gatazkak

Urruti da gizarte berria, komunismoa, eta hartara iristeko iraultza egin behar du proletariotzak, hau da, oraingoz Mugimendu Sozialistak. Behar du aliantzarik horretarako? Ez da samurra gaia. Haientzat prozesu iraultzailean bi alderdi nagusi daude jokoan, proletariotzarena eta burgesiarena, eta beraz, parte-hartzen duten esparruetan, horietan hobekuntzak lortzeko borrokatuko dira, baina beti ere iraultza sozialistaren norabidea elikatzeko balio badute. Prozesu hori guztia, proletariotzaren independentziaz egin behar dela azpimarratzen dute, eta ezkerreko beste sentsibilitate batzuek gogorarazten diete Mugimendu Sozialista bera ere aktore politiko bat gehiago dela.

Ikusmolde horrek arazoak sortu ditu hainbat gunetan, batez ere okupazioaren munduan, eta hainbat ahotsek leporatu die gaztetxeetako pluraltasuna hausten ari direla. Sare sozialetan ezagunak dira gatazka honi erreferentzia egiten dioten gaztetxeetako zenbait militante eta Errakiren arteko ika-mikak zorrotzak. Horietako bat da Gasteizko Arkillos etxe okupatua emandakoa: "Finean, 10 urtez, bizilagunez eta kolektiboz oso anitza izan den etxe bat, 4 egunetan pasatu da Errakirekin lotu den etxe bat izatera. Une zehatz bateko gehiengoak inposaturik bai, ez kontsentsuz. Autogestioa, asanblada eta auzolanaren balioak ezberdin ikusten ditugu guk", [idatzi zuten](#) sei bizilagunetako bik. [Errakiko pisukideen erantzuna](#): "Kaleratutako iritzi artikulua xedea argia da: mugimendu politiko bat, honek sortzen dituen tresnak eta bertako militanteak kosta ahala kosta kolpatzea. Azkenengo egunotan hamaika kasu ikusi ditugu intentzio hori berresten dutena".

Gaztetxe askotan ere izan dira gisa horretako arazo eta gatazkak, eta Gasteizko Errealeor auzo okupatua ere bai. "Kontsentsurik ez dagoenean, kontsentsua eraikitzen saiatu behar da, dio Aldalurrek, baina erdiesten ez bada, gehiengoak nahi duena egin behar da, bestela gutxiengoak erabakitzen du". Arazo zehatzen gaineko herritarren protestetan, Mugimendu Sozialista bestelako protesta bateratuetatik bereizten da hainbatetan, esate baterako mugimendu feministaren alorrean eta hilketa matxisten kasuan, batzuetan Itaiak bere ekitaldiak antolatu ditu.

Manifestazioak 29an

2008tik kapitalismoa krisi latzean dagoela uste dute, eta ondorioz, urtez urte langileriaren bizi baldintzak biziki kaltetzen ari direla. Krisi ekonomikoa eta COVID-19ak areagotu duen krisi politikoa ere hor dagoela azpimarratzen dute, eta urte bukaeran bereziki salatu dute COVID pasaportearen ezartzea. Protesta egin eta indar metaketa bultzatzeko, GKS urtarrilaren 29rako manifestazioak deitu ditu Bilbon eta Iruñean *Burgesiaren diktadura gelditu!* goiburupean. Krisi kapitalistaz eta alderdiez Gramscik egiten zuen hausnarketaren bueltan –bi alderdi daudela, burgesiarena eta

proletariotzarena– ezaugarritu dituzte mobilizazioak. Hala dio iragan abenduaren 13ko [Gedar-eko editorialak](#): “Hitzez langileriaren interesak defendatzen dituzten baina, izan, Burgesiaren Alderdiaren parte diren horiei guztiei bizkarra emateko unea da GKSren arabera”.

Orain arte egin duten agerraldi jendetsuena izan da iragan urriaren 8tik 12ra GKS eta IAK bultzatuta egin zen [Gazte Topagune Sozialista](#), 1.500 pertsonatik gora bilduz. Orain arte mugimendu honek dakarren berrikuntza nagusia ez da kuantitatiboa, baina datorren 29a garrantzitsua izango da haientzat, eta ezkerreko beste begi batzuek ere arretaz jarraituko dute zenbat biltzen diren eta hurrengo urratsak zein diren.

2022ko urtarrilaren 23a

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2763/euskal-herriko-mugimendu-sozialista>

BIGARREN ZATIA: MUGIMENDU SOZIALISTAREN HAINBAT KIDEEN TESTUAK

Langile boterearen egituraketarekiko taktika: okupazioa

Borroka garaia da! webgunerako kolaborazioa, egilea: Ziripot

ZER DA OKUPAZIOA?

Jabetza pribatuaren kontrako sabotaje edo expropiazioa burutzeko bitartekoa da. Honek, de facto, legalidade burgesa gainditzen duen aktibitate bat eskatzen duelarik. Alegia, sistema juridikoaren limiteak gainditzen ditu praktika honek, horregatik errepresioa ekarri lezake.

Sistema politiko honen zutabe nagusia plusbalioaren eraketan oinarritzen den esplotazio harremana dela kontuan hartuz, honen existentziak jabetza pribatua eta klase sozialak sortu eta etengabe birsortzen ditu, eta horrekin batera, langileria desjabetuaren eta burgesia/jabegoaren arteko klase borroka ematen da.

Hau esanda, jabetza pribatuak nori laguntzen dion ulertu behar dugu: bere lan indarra salduz irabazitako soldatarekin kotxe zaharra erosi duen eta hipoteka ordaintzen ari den langile klaseko emakumea, edo bitarteko produktiboen jabetza generazioz generazio herentziaz pasatzen doan eta langileen esplotaziotik dirua ateratzen duen familia burgesa. Manifestu komunistak esaten duen bezala:

Garbi ikusten da jabetza pribatuaren existentzia zeini komeni zaion: jabetza guztia duen populazioari, populazioaren %10ari, hau da, burgesiari. Era berean langile klaseko kideoi komeni zaigun bakarra jabetza pribatuaren abolizioa (hau da gure gainean burgesiak daukan nagusitasunaren oinarria) eta jabetza kolektiboan oinarritzen den gizarte bat eraikitzea da, hori lortzeko okupazioa bitarteko bezela erabiliz.

Askotan, okupazioa etxebizitzarekin lotzen badugu ere, eta dokumentu honetan enfasia egiten zaion arren, ezin dugu ahaztu okupazioa etxebizitzaz haratago doan bitartekoa dela: lurren okupazioa, bitarteko produktiboen okupazioa,...

ZERGATIK OKUPATU?

Azken aldian, EH-ko okupazio mugimendua bide onetik dijoanaren afirmazioa entzun ohi da, besteak beste etxe asko okupatzen ari direlako azken boladan, eta horrek “bitartekoa helburu bihurtzea” ulertzera eramaten gaitu. Lehen aipatu bezala, okupazioa bitarteko moduan ulertu behar dugu eta ez helburu bezala.

Kapitalak eraikina: espekulatzeko, plusbalioaren errealizazioa burutzeko, langileak hurrengo egunean lanera joateko behar duen deskantsua izateko eta balioaren balorizazioa egiteko behar du. Motzean esanda etekin ekonomikoa ateratzeko. Era berean, langile klasea sisteman subordinatuta egoteko merkantzia aproposa zaio

etxebizitza, jakinda, kontsumitu beharreko merkantzia bat dela, langilea bizi osorako hipotekatza behartzen du. Horren eraginez, langile horri sistemaren arauetan galtzea besterik ez zaio geratzen. Langile klasekoontzat ordea, etxebizitzak betetzen duen funtzio bakarra gure erreproduktzioarako espazio lasaia izatea da.

Mugimendu okupa batek okupatzen hasi aurretik garbi eduki behar duena zera da: estrategia baten beharra bitartekoa helburu ez bilakatzeko eta ekintza kontzientea izateko. Lehen aipatu dudana bezala, okupazioa jabetza pribatuaren kontrako sabotaje edo expropiazioa lortzeko bitartekoa da, non bitarteko hori desjabetuok jabetza pribatua abolitu eta jabetza kolektiboa eraikitzeke erabili behar dugun.

Horregatik, mugimendu okupa mugimendu iraultzaiearen baitan joan behar da. Alegia, totalitatea aldatzeko borrokatzen duen mugimendu bat. Horregatik, okupazioaren taktika sektorial hau gainerako borrokekin koordinatuta zein norabide berdinean joatea ezinbestekoa da, beraz, okupazioaren taktika, klase estrategiari subordinatua egon behar da.

Iraultza politiko-soziala emateko, alegia, Euskal Herriko metabolismo sozialaren forma ekonomikoa aldatzeko, baldintza batzuk beharrezkoak dira, besteak beste: klase kontzientziaren hedapena edo atxikipena langile klasearen kapa handi batean. Egun, baldintza hau oraindik urruti edo hobe esanda baldintza hau ez dugunez, gaur egun iraultzaieoi dagokigun funtzioa, beharrezkoa dugun klase kontzientzia hori hedatzea izango da, langile klasea klase politiko bihurtzeko eta aipaturiko iraultza politiko-soziala emateko.

Horregatik, borroka sektorialak norabide berdinean joan behar dutela esaten denean, honi egiten zaio erreferentzia, hasiera batean fronte desberdin hauen lanetako bat klase kontzientziaren hedapena eta artikulazioa izango delako: bakoitza bere borroka sektorialetik (hezkuntzatik, genero auziaren borrokatik) edo gure kasura ekarriz taktika sektorialetik (jabetza pribatuarena abolizioa eta jabetza kolektiboaren artikulazioa-egikaritzea). Evidentementean mugimendu okuparena barne. Klase kontzientziaz hitz egiten denean denok berdin ulertzeko honela definitzen da: langile klasea bere interes historikoaz jabetzea, alegia, klaserik gabeko gizartearen beharraz jabetzea eta hau borrokatuko duen klase politikoa bihurtzea.

Hau argi izanda, ezin dugu ulertu, kontzientzia soilik, hitzaldi teoriko batzuen bitartez edo okupatu eta gero ateratzen dugun irakurketa politikoaren bitartez sortuko dugunik, nahiz eta hauek ere funtzio hori bete. Klase kontzientzia kapa handiago batengana iristeko, praktika forma berrien bitartez kontzientzia hedatzea izan behar da iraultzaieon lana. Alegia, komunismoa gaurtik eraikitzen hasi behar gara, kontzientzia sortzeko funtzioa edukiko duelarik, besteak beste.

Azkenean, sistemari to jodido subordinatuta dagoen langile hark ikusteko benetan, zein harreman sozialek asetzen dituen bere beharrak eta interesak, beste modu batera esanda, bere interes historikoak begiz ikusi (harreman komunistak) eta horrekiko atxikipena sentitzeko.

Hau, okupatzen ditugun espazioetan praktikan jarritz, eta jabetza kolektiboko formak eskatzen dituen erlazio sozial berriak martxan jarritz. Izan etxebizitza edo enpresa okupatuan. Hala ere, proiektu hauek beraien fruitua emateko, edo praktika forma horiekin klase kontzientzia lortzeko, besteak beste, kontuan izan beharreko 5 puntu identifikatzen dira:

1- okupazioa klase elkartasunaren ekintza bihurtzen denean eta praktika isolatu (kanpo

proiektziorik gabekoa) eta indibidualista ez denean sortzen dela kontzientzia.

2- Okupazioaren praktika errearen inguruan okupazioaren inguruko klase irakurketa kritikoa egiten denean.

3- Okupazioa jabe kolektiboa eratzeko erabiltzen dugunean ez horrenbeste erabilera pribatura murrizten denean.

4- Komunismorako gogo iraultzailea pizten da: okupazioaren ekintza antolatua bere baitan, obretarako (fontaneria, elektrizitatea,...), autodefentsa juridikoa, autodefentsa mekanismo errearen gaitasun antolatua, uztartzen ditugunean langile antolakundearen baitan. Osotasunak (aurrez aipatutako gaitasunek) indarra emanez izaera kolektiboari, lanaren banaketak langile boterearen indarra erakutsiz, maila xuman bada ere.

5- Langile klaseko perfil desberdinetako sektoreekin batera martxan jartzea lortzen dugunean, bereziki, behar inmediate handiena dutenengana iristen garenean: etorkiak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, gazte prekarioak, desauziatuak, pentsionistak, langile kanporatuak, etxegabeak...

Ezinbestekoa zaigu, okupazio lokal, espontaneo eta partzialetatik maila handiko langile antolakundeek izan eskualde zein nazional mailakoek, era antolatuan eta lanaren banaketa antolatu batekin okupazio sistematikoa burutzea, langile botere antolatua elikatze eta kapitalaren eraso errepresiboa zailtzeko.

Aurrez aipatu den bezala, kanpo proiektzioa eta langile klaseko perfil desberdinetako sektoreekin martxan jartzea ere berebizikoa zaigu.

Adibidez, iratiko basoan, bertako lurra eta bordak okupatu eta bertan harreman komunista esperimendu eta produkzio erlazio forma berriak sortuz, 50 laguneko komuna sozialista bat sortzen dugula pentsatu. Proiektu iraultzaie honek inongo kanpo proiektziorik (gainontzeko langile klaseak proiektu honetako harremana ikusteko proposamen komunikatiboa) ez badu, komunak iraultza prozesuari egin diezaiokeen potentziala ez du aprobetxatuko, prozesu honi egingo dion ekarpen nagusia harreman komunista esperimendutzea eta bertatik, partaideek irakaspena ateratzea lortuko baitute. Azken funtzio hau ere ezinbestekoa zaigu iraultza prozesuan, baina ezin dugu ahaztu, egunen batean esperimendutzea horretan ateratako irakaspenak gizarte komunista batean aplikatzeko aurrez iraultza eman behar dugula, eta horretarako aurrez aipatu den bezala, harreman komunista esperimendutzearekin batera, langile klasea klase politiko potente bat izan dadin kontzientzia iraultzaiearen edapena ezinbestekoa da.

Horregatik, horrelako esperientzien zutabe nagusietako bat kanpo proiektzioa izatea garrantzitsua da, praktikaren bitartez kontzientzia sortzen laguntzeko. Bestalde, langile klaseko perfil homogeneo bati zuzentzea ohituta gauden etapa honetan, joera horri buelta emateko konpromiso militantea behar dugu, pixkanaka betiko borroka komunitatean gabiltzan, gazte juru sujetutik atera eta langile klaseko sektoreekin konektatu eta artikulatzeko beharra dugula bistakoa baita. Izan ere, hori emateko baldintzak presente ditugu egun, eta koiunturaren arabera baldintza horiek askotan handitu egingo zaizkigu, batez ere Krisi garaian.

Modu horretan, gure gune okupatuak erlazio sozial komunisten esperimendutzeak izateko baliatzen baditugu, kontu handia izan beharko dugu egungo erlazio sozialen kategoria ez erreproduzitzen (edo ahalik eta gutxien erreproduzitzen), horretarako lehenik kapital harremana zertan oinarritzen den ikertu beharko dugularik, alden neurrian bera ez erreproduzitzeko. Azkenean kontziente izan behar gara oraindik ez dauzkagula baldintzak, balio formatik haratago gure behar guztiak asetzeko, nahiz eta helburua hori izan. Baina tendentzia edo norabidea hori izan behar du, berriz errepikatuz, langile

boterearen egituraketarako taktika proposamen honek: maila nazionalean kordinatuta komuna sozialista txikiak sortuz, kapitalari espazioak kendu, esperientzietatik irakaspenak atera eta kontzientzia sortzeko norabidean joango da besteak beste.

Hau izan beharko litzateke, hasieran okupa mugimendua zen eta taktika honen aplikazioarekin langile mugimendu antolatua bihurtuko litzateken abangoardiaren linea estrategikoaren norabidea.

Hala ere, koiunturaren arabera klase estrategiaren baitan espazio okupatuak ere beste funtzio batzuk bete ditzazkete. Motzean esanda, iraultzaiek deskantsatzeko eta gure burua zaintzeko funtzioa ere hartu lezake, edo okupatu eta etxea alkilatze behar den dirua irabazten (soldatapeko lanean) denbora galdu beharrean militantzian zentratzeko (hala ere, forma hauek beti elkartasun antolatuan, jabetza kolektiboaren forman eta ez bakoitza bere etxe okupaz kezkatuta soilik). Esandakoa, pixkanaka aurrez aipatu dugun tendentzia hartzea komeniko litzaioke langile mugimendu antolatuari, alegia, balio formatik kanpo harremantzen den jabetza kolektiboko espazioak sortzea.

LANGILE MUGIMENDU ANTOLATUAREN OKUPA FRENTEAREN ANTO-LAKETA EREDUA:

– Borroka ideologikoz arduratzen direnak: Nahiz eta lan hau talde guztiak izan, taldetxo bat etxebizitzaren funtzionamendua (espekulazioa, honen funtzioa sistema kapitalistan, gentrifikazioa,...) sakonago lantzea interesgarria da, ondoren ahalik eta modu ximpleen eta adibideekin azaltzeko okupazioaren zein jabetza pribatuaren abolizioaren zilegitasuna eta hartara kapa gehiago konbentzitzeko ahalmena izateko.

– Lantalde teknikoa: Zerradurak irekitzen dakiten pertsonak, elektrizistak, iturginak, igeltseroak, informatikariak, jakintza juridikoa, etab...

– Okupazio bulegoa: Okupazioan interesa dutenekin kontaktua izateko espazioa izango litzateke hau. Bulego honen existentziaren propagandari bultzada haundia ematea garrantzitsua izango delarik, esate baterako, auzo marginaletan edo langile auzoetan, enpresetan, diputazioen komedore sozialetan eta horrelako lekuetan, “etxebizitzarekin arazoa? Etorri-deitu okupazio bulegora 666666666” jartzen duen kartelak jarriz zein komunikatzeko beste mila modu bilatuz. Alegia, ezinbestekoa da, lo egiteko espazioaren behar inmediatea duten horiekin konektatzea, guregana gerturatzeko eta proiektua proposatzeko. Proiektu edo proposamena modu askotakoa izan daiteke, hala ere aurrerago jabetza kolektiboaren proposamen konkretu bat azalduko da. Beste puntu garrantzitsu bat, interesatuekin edukitzen dugun harremana izango da, alegia, bulegoa ezin da ONG-bat izan, arazoa duenak, bere arazoa konpontzean ere mugimenduaren parte izateko konpromisoa eta ahal duten neurrian eta ahal duten eran laguntzeko konpromisoa eskatu behar zaiela uste dut. Hasieratik bukaerara beraien konpromisoa eta proiektuak eskatzen dituen baldintzak betetzea eskatu behar zaizkie.

– Autodefentsa lan taldea: Desalojo baten aurrean zein edozer behar dela, herri mugimenduarekin harremanak egingo dituen lan taldea, autodefentsa mekanismoen inguruan bereziki pentsatuko duen lan taldea.

JABETZA KOLEKTIBOAREN PROPOSAMEN PRAKTIKOA: *Etxebizitza parke okupatu kolektiboa*

Proposamen hau, aurreko antolaketa ereduarekin batera proposatzen da. Hala ere, aurreko antolaketa ereduak ez du zertan soilik proposamen praktikoa honekin joan beharrik.

Auzo/herri/eskualdean (antolatzen garen moduaren arabera) dugun “etxebizitza parke okupatu kolektiboaren” erabilera ahalmena, soilik mugimenduko kideak edukiko lukete. Kide bakoitzak, ahal bada, bere beharrak asetzeko behar duen espazioaren erabilera izango du, nahiz eta espazio hori berea ez izan. Etxebizitzako gela batean, mugimenduko hiru kide badaude (etxebizitza parke okupatu kolektiboan espazio gehiago ez dagoelako), arazoa ez da hiru horiena, kolektiboarena baizik, horregatik beste etxe bat okupatzeko ardura kolektiboarena izango da, erabaki hauek denak, objektu kolektiboen erabilerarako epea (kotxea Mireiak behar du astelehenean) asanbladetan hartuko direlarik. Era berean, objektu guztiak (butanoak, erreminta kaxak, plaka solarrak, autoak, mahaiak...) langile mugimendu antolatuarenak (antolatutako esparrukoarenak: auzo/herri/eskualde) izango dira. Hala ere, proposamen hau, langile mugimendu antolatuari dagokio fintzea eta gorpuztea, hau zirriborro xume bat da, jabetza kolektiboaz hitz egiten denean, gutxi gora behera zertaz hitz egiten den ohartzeko hain zuzen.

Kurtso politiko berria

[Kolitza](#)

Gedar, 2019/09/25

<https://gedar.eus/es/koiuntura/kurtso-politiko-berria>

Inork kurtso politiko honetan proletalgoaren ataza politikoengatik nire iritzia eskatuko balit, honakoa erantzungo nioke: **indartzea**.

Aurreko ziklo politikoaren azken hatsak eta erdi-mailako klase nazionalaren zati baten deskonposizio sozioekonomikoak bat egiten duten honetan, Euskal Herrian gazteria proletarioaren sektore ezberdinetatik ernaltzen ari den mugimendu sozialista, proletalgoaren prozesu sozialista berregituratzen eta birbideratzeko antolakuntza oinarriak zein oinarri politikoak jartzen ari da; agian, gainera, lan horretan Europar mailan eragiteraino.

Ezaugarri berrien artean ondorengoak nabarmendu daitezke: Lehenik, programa komunista eguneratuaren partetik nazio, genero eta bestelako problematiken barneratze kontzeptual zehatzagoa, praktikara orientatua. Bigarrenik, *egiturazko testuinguru sozialak* borrokatu eta transformatzeko ikuspegi politiko erradikala -eta ez soilik pertsona eta aktore kontingenteen aurkako borroka, ikuspegi aktibista eta moralista tradizionalak egin izan duen gisan-. Hau da, biolentzia eta zapalkuntza testuinguru sozial guztien artikulazioaren muina Kapitalaren botereak dominatzen duen gizarte burgesaren osotasuna dela ulertzen duen kontsiderazio estrategiko bazter ezina, proletalgoaren boterea territorialki ezartzeko Kapitalaren botere hori alderdi ofentsiban kolpatu behar denaren ulermenaren garapenarekin batera. Hirugarrenik, eskala handiko ofentsiba unitatea den masa alderdi komunista osatzeko joeran aurkitzen diren gazte antolakunde komunisten azaleratzea, elementu erreakzionario, saboteadore, antikomunista eta interklasistez araztuak, epe luze-rako ekintza batasuna dutenak eta Kapitalaren instituzioen (Estatutik hasi eta ezkerreko alderdietaraino) kontrolatik guztiz at daudenak. Finean, “herri mugimendu” zaharkitutik eta bere errepresio eta jazarpen psikologiko eta sozialaren tentakuluetatik ere ihes egiten duten antolakunde komunista berriak.

Testuinguru honetan, beren programa politikoa artikulatzeko inolako gaitasunik ez duen langile aristokrazia eta funtzionariotza “abertzale” eta “progresista”-k “herri mugimendu” zaharraren sen antikomunista eta antiproletarioa hertsiki jarraitzen du, bai alderdiaren ildo ofizialistak eta baita bere burua *iraultzaitzat* aurkeztera atrebitzen den lerro “autonomo” estetizista eta postmodernoak ere. Hala, erdi-mailako klasearen programa politikoaren eta bere sen politiko dekadenteak gidaturik, gatazka egoera bakoitzean antolakunde komunista proletarioen azaleratzearen kontra lerratzeko deiari jarraitzen dio. Batzuk, nahiz eta herri mugimendua eta bere sen tradizionala Sortu alderdi burokrata erreformista kontrajarriak daudela sinestarazten saiatu, honek ez du inolako funtsik.

Klase ertainaren bloke politikoaren burua alderdia da eta gorputza, herri mugimendua: alderdia joera “herrikoi” eta “anarkoideetatik” araztu da jada, soldataren eta sare instituzional burgesaren bidezko muturreko burokratizazioaren bidez estatu enpresa bilakatu baita. Bitartean, herri mugimenduak oinarri anarkoide eta postmodernoen eta alderdiaren komisario politikoen arteko sinbiosian dirau, ahitzen badirau ere. Izan ere, anarkoideak, kritikoak, eta abarrak, “herri mugimendua”-ren txapelaren pean eta honen antolakuntza-desordenaren baitan soilik aurkitzen dira gustura alderdi errebisionista kul-

turalki, ekonomikoki eta sozialki elikatuz. Hau normala da, banka babesten duen, traizioak adosten dituen eta bere jendea engainatzen duen alderdi batekin modu zuzenean kolaboratzea gero eta ezatseginagoa baita; hortik “herri mugimendu” otzanduari ematen zaion ospearen eta bigarren mailako kultur kolaboraziorako sareen garrantzia.

Sinbiosi honetan, herri mugimendua komunisten aurka egiteko beharrezkoa denean, erreformistak dira “borra” eta anarkoideak “eskuleku”, edo alderatziz bestela. Hamarkadaz hamarkada eskala handian gertatu diren asimilazioa, heziketa sozial antiproletarioa eta amorru antikomunista, hemen, autoritarismo burokrata gisa (alderditik natorrenez ni naiz buruzagi) edota burokratismo ‘anti-autoritario’ gisa (nik *agintzen* dut ‘buruzagien’ existentziaren kontra nagoelako) mozorroturik agertzen dira. Hori bai, ‘anti-autoritarioek’ ondo daramate errebisionisten buruzagitza; izutzen dituen buruzagitza komunista bat da. Edozelan ere, denak datoz bat espektro berria baztertu eta zapaltzeko orduan: indar eta inizatiba politikoa duen gazteria komunista borrokalari eta konprometitua, bere etsai guztiengatik defendatzeko determinazio osoa duena eta, beste batzuek, joeren collage eta parodia deskafeinatuz kopiatzen dutena zapaltzeko orduan. Gazteria komunista honen estetika politikoa, terminologia edo are mitinetako keinuak kopiatzeara iristen dira klase ertaineko behe-kapa galdu hauek. Oraindik deskonposizioan, guztiz noraezean eta burgesia txikiaren eta bere politikarien agindupean dagoen eta bere harrokeria moralistak eta protagonismo sozialerako duen afanak lurralde nazional osoko eta adin tarte guztietako kideak trufatzen dituen klase ertainaren frakzio baxu honen benetako agresibitatea ez da guztiz azaldu.

Bitartean, nazioarteko oligarkia inperialistarekin itunak egin nahi duten goi funtzionariotzak eta burgesia txiki nazionalistak estatu zapaltzaileen instituzio kapitalisten kudeaketa baketsurako programa gidatzen dute: alderdi bakarreko koalizioaren bidez, proletalgo osoa bizitzako esparru guztietan paktu sozial berritik erabat kanporatuta utziko duen botere banaketa berri bat negoziatuz. Honen kontra, azaleratzen ari diren antolakunde komunistak eta ezker abertzale historiko zaharreko kolektibo gutxi batzuk besterik ez dira agertu. Langile aristokraziak eta funtzionariotzak osatzen duten erdi-behe mailako klase-geruzek, zein proletalgo “abertzalearen” zati batek, gogo onez ez bada ere, oro har, burgesia txikiaren botere taldeek, lobbyek eta alderdiko politikari profesionalak oinarri sozialari egiten dizkioten edonolako traizio eta gezurrak onartu egiten dituzte. Azken finean, erdi-behe mailako geruzek ere, nahiago dute alderdi handi, interklasista eta despolitizatua masa alderdi komunista baino. Arrazoi sinple bat dute horretarako: oraindik gizarte burgesean duten promozio pertsonalerako aukeran sinesten dutelako eta ez berriz honen transformazio sozialistan (trauma postmodernoaren ondorengo konfiantza falta ohikoa dugu hau). Ez dute onartu nahi deskonposizio-egoeran dagoen Europa honetan denbora kontua besterik ez dela erdi-mailako klaseen pribilegioen hiletaren kanpai hotsa entzutea; baita aberastasun kontzentrazio gorena dagoen lurraldeetan ere, Euskal Herrian kasu.

Esan dudan moduan, antolakunde komunisten eta alderdi errebisionistaren arteko gatazkak saihestezinak dira, alderdi horren izatea modu sistematikoan *mehatxu komunista* erasotzea den heinean. Baina saihestezinak dira baita antolakunde komunisten eta antikomunismoaren ernamuina daraman “herri mugimendu” tradizionalaren artekoak ere, azken hau askotan lokalismo autogestio-zale gisa (osagai komunista argi bat zuen anarkismo tradizionaletik urrun) bere burua mozorrotzen saiatzen den arren. Honek honela jarraituko du *antolakunde komunistek, iraultza sozialistaren eta proletalgoaren aldeko sen politiko bat sortzen duten arte*, eta, honekin

batera, klase ertainen herri mugimendua langile mugimendu oso bilakatu arte: erreala den klase-autogestioz, ez soilik txosna eta gaztetxeetan (lanera joateko deitzen gaituzten arte denbora pasatzeko erabilia), baizik eta eskala sozialean artikulatuko dena. Hots, ez gaitu harritu behar erdi-mailako klaseen “herri mugimendua” eta mugimendu proletarioa gero eta gehiagotan talka egiteak, ezta euren arteko gatazkak ugaritzeak ere. Jende askok oraindik ez du honek guztiak duen klase antagonismo mailak dakartzan inplikazioen eta, une koiuntural ezberdinetan, zaharraren eta berriaren artean ezinbestean sortuko diren gatazkez jabetu nahi.

Bien bitartean estatuak eta bere instituzioek prozesu osoari euren ikuspuntu polizialek erreparatzen diote eta interpretazio polizialaren paradigma testuinguru berrirako egokitzen dihardute, etorkizunean gauzak gorpuztuko balira eta klase boterea begiz joa dela nabarmenduko balute ere, interbentziorako hierarkia kontzeptual, mediatiko eta juridikoa ehuntzen duten bitartean. Baina burgesiak ez du zertan hautsak harrotu edo metodo alarmista hauetaz baliatu, polizia, errepresioaren kipularen azken geruza baita: askoz lehenago ekiten baitu errepresio “kulturalak”, salakeria eta sabotajeek auzo eta herrietan, gaur gaurkoz langile aristokrazia erreakzionarioaren eta “herri mugimendu” otzanduaren (ildo ofizialarekiko “kritiko” zein lagunkoi izan) espazio sozial horietan, komisario politikoek oinarrien osotasunaren babes antikomunista jasotzen duten gune horietan. Erdi-mailako klasearen botere instituzional burgesaren afirmazioaren tesia bere ukazio “kritikoarekin” elkartzen da proletalgora botere sozialistaren tesi gisa baieztatzen dutenen aurka egiteko. Euskal Herriko sen politiko tradizional osoa eskala handiko artikulazio proletarioaren edozein mehatxuren aurrean bortxakeriaz erreakzionatzeko formatua dago. Baina botere sozialistaren inizatiba politikoa aurrerantz doa, prozesu sozialista historikoaren berregituraketaren bidean.

Sozialismoa beti izan da, eta orain ere bada, klasearen autonomia politiko eta soziala, proletalgoraren boterea (hau argi utzi nahi dut estrategiarik gabeko aktibismoa eta aisialdia sustatzen duten talde lokalen ustezko autonomia abstraktuen aurrean). Euskal Herriko gazteria proletarizatua indar metaketarako antolakuntza oinarriak jartzen ari da. Orain metaketa horren sistematizazio taktikorako eta maila guztietan indartzeko tartea da. Ekaineko Topagunearen harira idatzi nuen koiunturako artikuluan, borrokaren metaketaz eta eredu aktibista burokratarekiko aurkakotasuneko eraikuntzaren ereduaz mintzo nintzen. Erdi-mailako klaseak herri mugimendua bere marko politikoa indartzeko eta bere dinamika elektorala elikatzeko badarabil, proletalgorak bere programa antolakuntza eta borroka errearen bidez garatzen du, fronte guztietan garaipenak erdietsiz. Hemen, langileriaren independentzia politikoa botere artikulazio metaketarako oinarrizko arma gisa agertzen da.

Egia esan, independentzia politikoa gizarte berri baten printzipioa baino ez da. Masa alderdi komunista proletalgoraren batasun politiko soziala bera da, etengabeko eraikuntzan dagoena eta eraikitzen jarraitzeko elementu horiek borrokaren bidez batzen dituen; izan langile kontrol espazio berri bat, lanpostuko baldintzetan hobekuntza bat, “Prosegurrek” fakultate batean eskubide politikoei adierazten dioten errespetua edo ikasleriaren ebaluaketen uztarrria lasaitzea. Proletalgorak honela lortzen ditu ofentsiba unitate den alderdiaren aldamia gorpuzteko adreiluak, burgesiari bizitza sozialaren fronte eta eremu botere kuotak atzitzeko borroka taktikoaren bidez indar korrelazioak aldatuz. Estatu Sozialista bezala eratuko den botere sozialistak, gizartearen gero eta testuinguru eta eremu gehiagoren kontrol proletarioa du aurrebaldintza material gisa. Garaipen bakoitzak eraikuntza elementuak batzen dizkio alderdi komunistaren aldambio sozial eta politikoa-

ri, botere sozialistaren osotasunean lekua izan dezaten, burgesiari atzitu zaizkion botere kuoten transformazio politikoaren ondoren beti ere. Hau da: botere sozialistaren eraikuntza etengabea lan ildo estrategiko gisa etengabe indartzen da fronte guztietan ematen diren borroka taktikoen ildo estrategikoari esker, borroka hauetatik elikatzen den heinean.

Eredu estrategiko honek aurrerapenak ekarri ditzake leninismo tradizionalaren eredu politizistarekin alderatuz, nahiz eta antolakuntza teknologiaren ikuspegitik konplexutasun handiagoa galdatzen duen; bada arazo honi inteligentzia kolektiboak erantzun beharko dio. Gizarte burgesak berariazkoa duen eta XX. mendean huts egin zuten prozesu sozialistei hainbeste arazo eragin zizkieten dualismoak, masa eta alderdiaren artekoak edota politika eta gizartearen artekoak kasu, konpondu daitezke alderdia batasun politiko, sozial eta kulturala den osotasun burgesa borrokatzen duen eta honekin etengabeko elkar harreman dialektikoan aurkitzen den osotasun politiko, sozial eta kultural bezala ulertuz gero. Beraz, Estatu Sozialista, injustizia, klasismo, ez-eraginkortasun sozial eta zapalkuntza guztiak errotik mozteko aukerak biderkatzen dituen gizarte-antolaketa-aren garapena besterik ezin daiteke izan, proletalgoaren burgesiaren gaineko nagusitasun erreala- ren adierazpena besterik ez baita; eta ez irudimenaren emaitza den utopia ekonomiko soila.

Esate baterako: Osakidetza lotsagarria da eta konponbide bakarra du; osasun-zerbitzua kolektiboarena den eta proletalgoaren kontrol zuzenaren pe dagoen egitura sozial baten menpe egotea. Baina hau ezinezkoa da estatu burges batean, boterean dagoen alderdia dena delarik ere. Gertakari eta mediazioen kateatzea ezin da aurrez iragarri baina, hemen, osasunaren kontrola hartzeak burgesiaren zuzendaritzaren eskuetan dagoen lan prozesuaren kontrola hartzea galdatzen du, berau gizarte osoaren eskuetan, hau da, klase unibertsal gisa agertzen den proletalgoaren eskuetan, jarri ahal izateko. Berdina gertatzen da metabolismo sozial orokorraren gainontzeko eremu guztietan.

Antolakuntza oinarriak hedatu egingo dira eta puntu bakoitzean lan handia eginez indartu beharko dira. Mehatxu oso handiak ditugu parez pare, gazteria komunistak asimilatua eta despolutizatu dagoen gizarte osoa baitu aurka. Baina aukera zabalak ere agertu zaizkio historiaren atea erdi irekita baitago: guztiz ireki eta sekula berriz itxi ez dadin gogor lan egin beharko dugu.

Pauso bat aurrera, bi atzera

[Aitor Martinez](#)

Gedar, 2020/09/17

<https://gedar.eus/koiuntura/pauso-bat-aurrera-bi-atzera>

Aukera berriak haustura bidez sortu ohi dira; inoiz ez absolutuki eta modu positiboan, baizik eta dagoenaren ukaziotik abiatuta. Hala egiten da komunismorako bidea, borroka errealetan, kapitalismoaren eta bere adierazpen formen aurkako borrokan, ezeztapenez, eta ez ideia baten baieztapen hutsez. Horregatik ere ideologiari kritika, honek boluntarismoa baino adierazten ez duenean, eta borroka errealekiko atxikimendu kulturala izateari uzten dionean. Kontrara, ideologiak zerbait behar baldin badu, argitasuna da, eta teoria eta mugimendu iraultzaileekiko atxikimendu mekanismo garbia, inoiz ez erreallitatea lausotzen duen premisa subjektiboa. Kontzientzia kolektiboa behar du ideologiak, borroka kultura berrian sustraitzen dena.

Bide horretan jardun du azken urteotan Euskal Herriko Mugimendu Sozialistak. Paradigma berri baten beharra aldarrikatu du hasieratik, eta hartarako marko kontzeptual berri bat eskaini eta garatu. Marko kontzeptual horrek bi zutabe nagusi izan ditu: alde batetik, sistema kapitalistari kritika orokorra. Bestetik, langile klasearen antolakuntza forma historikoei kritika, eta bereziki, sozialdemokraziari eta haren klase ertaineko soziologia politikoari kritika. Eginkizun biek proletalgoaren independentzia politikoaren eraikuntzan bidea egitea izan dute helburu, bere independentzia teorikoa eta ideologikoa funts izanda. Eta biak, teoriaren eta antolakuntzaren esparruan gauzatu dira, hala eskatzen baitu kritika iraultzaileak.

Ez da harritzekoa, beraz, kritikak ere *-eta proletalgoaren independentziaren aurkako jarduna-*, bide beretik etortzea, hau da, teoria eta antolakuntzaren bidetik. Esan behar da, hala ere, kritikak ez direla beti modu zuzenean gauzatzen, eta sarri ez dela inor interpelatzen. Batzuetan programa politikoetara jo behar da aktore politiko desberdinek bere garaiari eta bere garaikideei egiten dieten kritikaz jabetzeko. Nik hala egin dut, eta bereziki bi dira nire atentzioa deitu dutenak: batasunaren defentsa eta klase borrokaren marko autonomo nazionala baldintza ezinbesteko gisa jartzea.

Lehenengoa aski definituta geratzen da bigarrena irakurrita: batasun nazionala *-edo klaseen arteko batasuna, programa nazionalaren gainean. De facto:* proletalgoaren independentziaren ukazioa eta programa komunistaren abolizioa, nazionalismoaren mesedetan. Horrez gain, kritika faltsua da, eta bere premisa okerra. Izan ere, azken urteetan batasunaren printzipioa modu koherentean eta emaitza positiboekin gauzatu du Mugimendu Sozialistak, hain zuzen ere proletalgoaren independentzia jarri duelako bere programaren erdigunean, hau da, interklasismoak batasunaren haustura gisa eta sektarismo gisa ezaugarritu duen printzipioaren arabera antolatu delako. Kasu: batasuna ez da borondate kontua, estrategia-auzia baizik, eta azkenekoari uko egiten zaionean, batasuna ezinezko egiten da, paper bustia baino ez da. Gainera, halakoetan batasuna potentzialitateen bazterketan oinarritzen da, proletalgo komunista subjektu gisa desegitean, ustez handiagoa den subjektu baten interesen alde. Usteak erdia ustel: praktikan, printzipio horien arabera gauzatutako batasuna zatiketan ebatzi ohi da.

Bigarrena -klase borrokaren marko autonomia- estrategia interklasista edota nazionalismoaren marra gorria izan da beti, eta Mugimendu Sozialistak agortutzat jo duen Nazio Askapen Mugimenduarena. Mugimendu horren agorpenaren nukleoa osatzen du aipatu teoria politikoak: hau hedatu, hura konprenitu. Teoria horren arabera, muga nazionalak klase borrokaren hedapenaren limite gisa agertzen dira, eta nazioa/nazionalismoa klase borrokaren baldintza gisa. Ondorioz, klase borrokari bere hedapena oztopatzen duen baldintza ezartzen zaio, klase borroka agortzen duen baldintza bera, eta proletalgoari bere unibertsaltasuna ukatzen zaio, naziora zokoratutako ekoizleen klasea izaten jarraitzeko. Hala, marra gorriak bi alde banatzen ditu: nazionalismoa batean, komunismoa bestean.

Ez da hau nazio auzia garatzeko tartea, ezta auzi horren ebazpenak komunitate komunistan hartzen duen forma garatzeko tartea ere. Aski da esatea Euskal Herriak, iraungo badu, proletalgoaren nazioarteko batasunaren ondorioz iraungo duela, eta ez klaseen arteko borroka muga nazioaletara mugatuz. Hau da, euskal herritarren komunitatea, izatekotan, mundu mailako estrategia komunistaren emaitza izango da, eta ez haren baldintza. Komunitate hori nola osatzen den, eta zein ezaugarri dituen, prozesu horren arabera definituko da, hark baldintzatuta, eta ez haren baldintzatzaille gisa.

Gai horiek guztiak, printzipioz, Mugimendu Sozialistaren sorreraren ezaugarri den haustura historikoan ebatzita daude. Kontrajartze bat besterik ez dena hedatzea da egin-beharra, eta teoria iraultzaile komunista bere nukleo arrazionalaren aurkako eraso errebisionista guztietatik babestea. Defentsa horren esku dago proletalgoaren independentzia atzeraezina izatea, eta arma suntsiezina izatea komunismoaren aldeko borrokan. Ez dezagun atzera egiten utzi aurreratu den guztia.

KONTSEILU SOZIALISTEN ARTIKULAZIOA ETA ESTRATEGIA SOZIALISTA

Kolitza

Arteka, 2021-01-03

https://gedar.eus/assets/pdf/arteka_zenbakiak/62a9e96a582c9.Arteka13eus.pdf

Ziklo politiko bat amaitzear da. Bere azken etapa ezaugarritu du nazioarteko komunismoaren porrot progresiboak. Historiaren amaiera izan nahi zuen etapa bat izan da, non antagonismo sozialek lekua zuten politika burgesaren joko-esparruaren barruan, non boterean zegoen oligarkia finantzarioaren aurkako oposizio erreformista klasearteko bloke nazionalek ordezkatzeko zuten, klase ertainen eta burgesia nazionalaren aliantzaren adierazpen gisa. Nolanahi ere: alderdi politiko burgesak alderdi politiko burgesekin parez pare, beren interes partikularren arteko liskarrak ebazten politika instituzional burgesaren, zuzenbide burgesaren eta nazioen arteko gerra inperialistaren bidez.

Proletalgoa, XX. mendearen bigarren erdian, klase minoritario bat izatera iritsi zen botere-zentro inperialistetan, non kontsumoaren eta eskubide zibilen burbuila bat sortu zen, alde batetik, Nazioarteko Iraultza Sozialistaren mehatxuagatik eta langile masen ideologizazio indartsuagatik; eta, bestetik, metaketa fordistaren eredu ekonomikoagatik nahiz horren osteko toyotismoagatik. Biek ala biek zuten zimendu, hain zuzen, inperialismoan eta masa-ekoizpenean oinarritutako kontsumo gizartea.

Burgesiaren alderdien politika-dinamika horrek, non politika iraultzailea deuseztatuta geratzen zen, ez du gehiagorako ematen. Lehenik eta behin, oinarri ekonomikoa – irabazien metaketa, soldaten igoera ahalbidetzen duen tasa batean–, lehertzen ari delako metaketaren krisi global larriarekin. Krisi horrek, kasurik onenean, metaketa-eredu berri bat ekarriko du, aurrekoa baino askoz bortitzagoa izango dena langile masentzat. Eta bigarrenik, ideologia iraultzailearen nazioarteko porrotak, nazioarteko finantzen aurrean ahuldu dituelako ez soilik proletalgoa, baizik eta langile klase guztiak, burgesia nazionalen zirkulu zabalak barne.

Gaur egun eta duela hamarkada batzuetatik, mendebalde osoan, hazten eta hazten ari da proletalgoa –langileen artean dagoen klaserik baxuena, jabetza bakarra duena saltzeko eskura duen lan-indar hutsa–, eta ez dio ezertarako balio erreformismoaren dinamika instituzionalak. Kapitalaren ezkerreko alderdiak erretiratzen ari dira nazioarteko finantza-oligarkiaren erasoaldiaren aurrean, iraungita dauden eskubideak gordetzeko programa kontserbadoreekin, aurreko zikloan lortutako ongizate-kotak eta askatasunak gordetzeko taktikarekin, baina inolako arrakastarik gabe.

Soberan dago esatea erreformismoak porrot egin duela proletalgoa Estatuan harrizko kide gisa integratzeko saiakeran, baita boto-emaileen masa gisa ere, nahiz eta, neurri batean, lortu duen proletalgoa independentzia poli tiko orotatik urruntzea, masa-kultura proletario antipolitiko bat sortuz, Estatuaren aparatu ideologikoen bidez.

Nolanahi ere, agortuta dago erreformari jokoa ematen zion estatu burgesaren esparru politikoa. Masa-proletarizazioa geldiezina da, orain, espeziearen biziraupenari egindako mehatxuek, historia modernoan sekula ikusi gabekoak, apainduta ageri den arren.

Abiapuntu erradikalera itzultzen ari dira antagonismoak: Iraultza Sozialista ala Basakeria.

Blokeo politiko burgesaz nekatuta, zeinak gure klaseari miseria morala, langabezia, pobrezia materiala, errepresioa eta kartzela, gaixotasunak, gizarte-bazterketa, gerrak eta heriotza besterik ez baitizkio ekarri, munduko hainbat lekutako gazte nukleo militante txikiak beren buruei galdezka hasi dira Nazioarteko Iraultza Sozialistaren programa

historikoki berriro irekitzeaz. Gure ordua iristen ari da, maila guztietan armatu behar ditugu geure buruak datorkigun zereginari erantzuteko.

HAZKUNDE MUGAGABEA IZANGO DUTEN ALDERDIZELULAK SORTZEA

Gure zeregin garrantzitsuena epe laburrean, maila ideologikoan, nazioarteko eztabaida artikulatzea eta bultzatzea da, programa komunista iraultzailea berrosatzearen eta eguneratzearen alde. Eztabaida horrek, hain zuzen, bateratu egin behar luke klase borrokaren eta teoria marxistaren –zientziaren arlo guztietan– esperientzia historikoaren onena.

Komunismoak, klaserik gabeko gizarte unibertsal baten programa historiko gisa, non gizateria osoaren ondare baitiren askatasun politikoa, ongizatea eta aberastasuna, inoiz baino gaurkotasun handiagoa du mehatxu larriek ezaugarritutako testuinguruan, zeinaren aurrean kokatu duen giza-arrasa kapitalismoak. Mehatxu horiek, gaur egun, honako hauek dira: gizarte-bizitzaren erabateko deshumanizazioa, ekosistemen suntsipen atzeraezina, gizarte-bazterketa eta atomizazio orokorra, gehiengoarentzako miseria materiala, populazioen aurkako erabateko gerra, eta biztanleriaren gehiengoaren gain metatzaile handien gutxiengo batek ezarritako menderatze politiko zapaltzailea. Baina ezin gara asebate lan hori bere forma sinplean formulatuta, ezta mugimendu komunistaren nazioarteko eztabaida hori zeregin abstraktu bakar gisa kokatuta ere. Zeregin horren formulazio ideologiko hutsa, zehaztasun praktikorik gabe, motz geratzen da. Ataza zehaztu egin behar da, eztabaida hori praktika aurreratuen eztabaida da, eztabaidak gorpuztu egin behar du. Besteak beste, atzeraezina da dinamismoa hartzen hasi diren militante komunista iraultzaileen sarea zabaltzea, zirkulu zentrokideetan, eta hazkunde proportzionalarekin. Ehunka izatetik, milaka izatera igarotzea, milaka izatetik, dozenaka eta ehunka mila izatera igarotzea, milioika izatera, harik eta komunismoaren nazioarteko ehun iraultzailea, gorputz sozial iraultzailea, erabat berrosatu arte; izan ere, gorputz hori izango da, bermeeekin, gizarte-ereduaren trantsizio historikoak eragiten dituen askotariko arazo guztiei konponbidea bilatzeko gai den eztabaida boteretsu eta benetakoa garatuko duena. Bere masa-dimentsioko proletariotza iraultzaile hori izango da, hain zuzen, ezinbesteko eginbehar historiko honi arrakastaz ekingo diona: teoria iraultzailea eguneratzea eta prozesu sozialistari ofentsiba mailara jauzi egiteko bultzada berria ematea. Hori da gure belaunaldi-misioa, komunismoaren berreraketa ideologiko, politiko eta antolatzailea planeta osoan.

Hori esanda, gure herrialde txikian lur hartuta, Euskal Herriko Mugimendu Sozialistatik proposatzen ari gara eguneraketa-eredu bat, ehun komunista iraultzailearen hazkunde proportzionalan datzana, estrategia bateratu baina aldi berean anitz baten inguruan, belaunaldi bakoitzean, subjektibotasun zapaldu bakoitzean eta bizitza sozialaren eta ekoizpenaren eremu bakoitzean artikulatzeko gai izango dena, sozialismoaren esparru kontzeptuala borroka-gune bakoitzean hedatzeko gai izango dena. Hazkunde proportzionala, espazio sozial guztiak, belaunaldi guztiak eta zapalkuntza mota guztiak Iraultza Sozialistaren eta Erreakzioaren arteko klase-borrokarako espazio bihurtzeko potentzialarekin, egungo Mugimendu formaren estrategia mailaz maila garatzeko, Alderdi formatik igaroz ofentsibaren sintesi gisa, Estatu-Komuna formara heltzeraino, Proletariotzaren Diktadura Iraultzaile gisa.

Definitu berri ditudan espazio komunista iraultzailearen –aurrerantzean proletario iraultzailea– existentziaren hiru modalitate progresiboak antolaketa-eredu berekoak izango lirateke, mailaz maila hobetutako eta konplexu egindako eredu bat, agertokian aurrera egin ahala: antolaketa-eredu hori proletarioen demokrazia da. Demokrazia proletarioak bere adierazpen historikorik handiena izan du Kontseiluen ereduari. Kontseilu

horiek partaidetzako organoak dira eta, aldi berean, proletario iraultzailearen boterearen arrazionaltasun finalistikoa maximizatzen dute. Beren artean modu zentralizatuan artikulatutako organoak dira, arazo orokorrei konponbide bateratua emateko, osotasuna koordinatzeko, eta egoeraren araberrako auzi garrantzitsuak erabakitzeke, non administrazio-ko kargu guztiak ezeztatagarriak diren une oro.

Antolaketa-eredu horrek, estrategia iraultzailea garatzeko egitura formal gisa, kontseilu –botere proletarioaren administrazio-zelulak– sare unibertsal batean datza, bai bere Mugimendu forma oinarritzkoan, bai bere Alderdi forman –ofentsibarako erakunde zentrala, proletariotza iraultzailearen erakunde eta instituzio guztiak artikulatuko lituzkeena–, bai eta Estatu-Komunan ere, klase borrokaren maila goren gisa, mundu mailako klase arteko gerra zibilaren fase aurreratuaren berredizioa izango litzatekeena. Mendearen lehen erdian bizi izan zena bezalakoa.

Ordezkatzen duten boterearen ikuspegitik, Kontseilu Sozialistak dira proletariotza iraultzailearen organo betearazleak eta haren botere antolatua; eta ez, proletariotza osoaren organo deliberatzaile eta ahalmenik gabeak, parte-hartze fikziozkoa eta hutsa izatera irekita daudenak, bai eta erantzukizunik gabeko subjektu indibidualen ustezko eskubide batera irekita ere. Kontseiluen funtsezko araua ez da gizabanako abstraktuek beren iritzia etengabe emateko duten eskubidea; kontseilu horiek administratiboki antolatzen duten botere kolektiboaren izaera unibertsala baizik, gizarte osoaren zerbitzura dagoen botere kolektiboa; lan-taldeek, bitarteko kolektiboek eta kontseilu-sare osoak parte hartzen duten helburuek duten moduagatik, estrategia iraultzailearekin bat eginda. Hau da: Kontseiluak ez dira gizabanako abstraktuentzako eskubide-plataformak; gizabanakoek, militante zehatz gisa, gizabanako etiko gisa, guztiak desberdinak baitira, daukaten oinarritzko antolaketa-forma baizik, eta horiek ez dute parte hartzeko eskubiderik, betebeharra baizik.

Horrela, parte-hartzea jarduera kualitatibo bihurtzen da, eta ez egozentrismoaren simulakro, parte-hartze eredu burges ‘formalak’ sustatu duen modura, auzoko asanblada ustez autogestionatutik –non bakoitzak berea defendatzen duen– hasi eta legebiltzarrerara arte.

Erabakiak hartzeko ereduari dagokionez, kontseiluek elkarren osagarri diren bi ezaugarri dituzte: alde batetik, kide guztiek berdintasun errealean parte hartzea; eta, bestetik, ikuspuntuaren pisuaren arteko aldea, betiere kolektiboki neurtuta arrazionaltasun potentzialaren eta argudioaren mailaren arabera, eta egokituta, hain zuzen, nazioarteko mugimendu komunistako gero eta sektore gehiagok partekatutako estrategian zehaztutako errealitatera eta helburu iraultzaileetara –horretarako, ezinbestekoa izango da aipatutako nazioarteko eztabaida zabala etengabe bultzatzea–.

Demokrazia gehiengoak eta gutxiengoak dira, baina ez nolana hikoak; osotasunarentzako onena dena aukeratzen duten gehiengoak eta gutxiengoak baizik. Demokrazia burgesak, zeina oinarrituta dagoen orokorrean gizartetik aldentuta dauden alderdien arteko adostasunetan –gizartea ordezkatzen dutela esan baina, finean, beren interes sektorioei erantzuten dietenak–, lehian dauden alderdi-eragileen interes partikularren arabera eratzen ditu beti administrazio-erabakiak. Eztabaida parlamentarioen helburua ez da, inondik inora, guztiontzako onena izango den erabakia perfekzionatzea, bakoitzaren interes partikularrak neurri handiagoan edo txikiagoan inposatzea baizik. Enpresa-negozia-kiaketen ereduak da, gaur gaurkoz, alderdi burgesen arteko zein alderdien barruko korronte ezberdinen arteko elkarrizketa ereduak. Lehenik eta behin, eskura ditudan baliabide guztiekin zu zapaltzen saiatuko naiz eta, gero, lortutako indar-korrelazioaren arabera, ikusiko dugu ea pastelaren zein zatirekin geratzen den bakoitza. Haien helburuak beti klasistak eta partikularrak direlako gertatzen da hori. Helburu horiek, bereziki, lan-indarraren esplotazioaren aldamiotan daude oinarrituta, bai eta dinamika ekonomiko horrek

eremu politikora jaurtitzen dituen emaitzetan ere, banatu beharreko botere pribatu gisa. Administrazio burgesak ez bezala, Kontseiluak parte-hartze unibertsaleko prozesu bat dira eta errotik izan behar dute, bai eta, aldi berean, denon intereserako kalitatezko erabaki-organoak ere. Hori Kontseiluak militanteek osatuta baino ezin da lortu, militantzia ulertuta, hain zuzen, gizartean kualitatiboki parte hartzeko prestakuntza etiko progresibo gisa, besteen bizitzak hobetzeko diziplinaz jarduten duen pertsona eredu gisa, boterea modu bateratuan biltzen duten erakunde sozial askeetan –ez estatu burgesaren administrazio politikoan bezala, zeina botere errearen eskola baita, zeinak botere eskuordetuen itxurazkobanaketarekin funtzionatzen baitu, boterearen benetako iturria, ordea, nazioarteko finantza-zentraletan eta haien organoetan antidemokratikoetan dagoen bitartean–.

Azken batean, militante komunistak, motibazio etikorik gabeko proletario alienatuaren pertsona ereduari kontrajarrita, parte hartzen duenean, ekarpena egitea besterik ez du biltatu behar, eta ez pertsonalki aprobetxatzea, antolakuntzaren subjektibotasun burges batetik. Kontseilua, Sozialismoaren –proletalgoaren botere politikoa– administrazio-zelula gisa, soilik militantzia komunistaren artikulaziotik eraiki daiteke, kolektibitateari beren onena eman nahi dioten gizabanakoen militantzia komunistatik. Isilik egoten dakite baina baita, ekarpen on bat pentsatu dutenean, zorrotz hitz egiten ere; besteen ahalmenak beti positiboki baloratzen dakite; autokritika egiten dute sistematikoki; eta etengabe egiten dute borroka beren burua eta taldea hobetzeko, hain zuzen, lan diziplinatuaren, konpainia osasuntsuaren eta adiskidetasunaren bidez, bai eta beren giza ahalmenen etengabeko azterketaren eta hobekuntzaren bidez ere. Kontseilu Sozialistak administrazio-sistema entseatu behar du. Administrazio-sistema horrek, zelula gisa, gizartearen plangintza sozialista osatzen du Kontseiluen Estatu Sozialistan, edo Estatu-Komunan. Sistema hori erabat bideraezina da militante komunistaren pertsona eredu ez bada iristen nola-baiteko orokortzemailara proletarioen artean.

Ikuspegi praktiko batetik, Euskal Herriko egungo Mugimendu Sozialistaren Mugimendu Formaren garapen-mailan, fronteetako eta lurralde eremuetako borroka koordinatuko dituen administrazio-lotura eratzen dute kontseiluek. Fronteetan baldintzak aldatzeko borroka taktikoko prozesu guztiek zera izan behar dute, aldi berean: 1. Borroka ideologikoko prozesuak, non teoria iraultzaileak posizioak aurreratzen dituen eta ideologia iraultzailea hedatzen den masa proletarioen artean, eta 2. Hobekuntza-prozesuak, eta ez ordena kapitalistan proletalgoaren sektore txikiak dituzten berehalako baldintzei dagokienez, baizik eta, batez ere, proletalgo iraultzaileak eremu sozialaren gainean duen kontrol-proporzioari lotuta, hau da, burgesiaren alderdiak eremu horretan duen kontrol-mailaren aurkako borrokaz ari gara. Hori posible izateko, plan kontzeptual, dinamiko eta progresibo bat zehaztu behar da, gizarte-bizitzako esparru guztiak klaseen arteko borrokarako esparru politiko gisa birkontzeptualizatuko dituen, etorkizuneko Estatu Sozialista bat osatzeko kontzeptuen bidez, Gizarte Komunista baterako trantsizioa egin ahal izateko.

Adibide bat: unibertsitean edo ikastetxeetan ‘hobekuntzengatik’ egiten diren borroka taktikoak Nazioarteko Hezkuntza Sozialistaren Espazio bat izateko planak zehaztutako norabide estrategikoan baino ez dira sustatu behar, proletariotza iraultzailearen kontrolpean, non hezkuntzaren lan prozesuak erabat sozializatuko liratekeen. Plan estrategikoak zehaztuko lukeen ortzi-muga horretara bidean, urrats bakoitza berehalako borroka taktikorako elementu bat izan daiteke.

Berehalako hobekuntzak Nazioarteko Iraultza Sozialistarako erregaiak izan daitezke, baldin eta, alde batetik, proletariotza iraultzailea bada bere borrokaekin eta ideologia iraultzailearen hedapen-jarduerarekin gauzatzen dituen, eta, bestetik, proletariotza iraultzaileak garatzen diren eremuan duen kontrola areagotzeko balio badu, eta, beraz,

proletariotza iraultzailearen gizarte-prozesuen kontrol orokorra eta botere sozialistaren antolaketa-esparrua areagotzenbaditu.

Azalpen labur gisa, uler bedi proletalgo iraultzailetzat hartzen ari naizela etengabe aldatzen ari den subjekt-ltu historikoa, ideologia iraultzailean, kontzientzia historikoa, gaur arteko klase borrokaren historia osoa zeharkatzen duen subjektu sozial antolatua den aldetik, eta, kontzeptuaren ordenan, klase borrokaren etorkizuneko historia modu estrategikoan zeharkatzen jarraituko duena, hurrenez hurren mugimendu, alderdi edo estatu formatatik igaroz, bere zeregina bete arte.

Nolanahi ere, eta esan bezala, berehalako borroka proletalgo iraultzaile horren “estrategiaren uneen” zentzuan garatu behar dira soilik, Estatu Sozialistarekiko aurreratutako posizio gisa, non proletariotza iraultzaileak burgesiaren alderdiak baino kontrol maila handiagoa izango lukeen gizarte-prozesu orokorretan zein lurraldeetan. Prozesu horretarako, Masen Alderdi Komunista izango da bitartekari, talde proletario handiak militante sozialista bilakatzeko prozesuan sartuz. Prozesu estrategikoan, borroka zehatzak, bestalde, Botere Proletarioaren pixkanakako eraikuntza dira (hau da, formalki unibertsal den irispidea duen botere soziala) hedatzen ari den botere sozialistaren antolaketa-esparruaren inguruko gizarte-esparru guztietan, proletariotza iraultzailea burgesiari gailendu ahal izateko.

Zer ordezkutzen dute, orduan, Kontseilu Sozialistek? Laburbilduz, kontseiluak demokrazia proletarioaren administrazio-zelulak dira eta militante sare komunistaren hazkunde proportzionalerako fronte zein borroka zehatzak artikulatzeko, proletariotza iraultzaileak prozesu sozialak kontrolatzeko eremua pixkanaka zabaltzeko eta Alderdi Komunista mundu mailan berreratua izango den ofentsiba fase batean proletalgoaren sektore ezberdinetan eta konpromiso maila ezberdinekin komunismoa gero eta gehiago nagusitzeko zeregin berehalakoa dute. Fronteen lotura taktikoa eta Prozesu Sozialistarekiko lotura estrategikoa eta ideologikoa. Kontseilu Sozialistaren homogeneotasunak eta sinpletasunak lurralde-artikulazio potentziala bermatzen du eskala handian, indar burgesen korrelazioek osatutako marjina idealistatik gabe, prozesuaren une bakoitzean beharrezkoak diren maila eta eskalan, ikuspuntu sektorialetik (ekoizpenean, kalean, borroka-fronteetan) edo lurralde-ikuspuntutik (eskualde-, nazio- eta kontinente- mailan), Munduko Iraultza Sozialistarako iritsi arte. Kontseiluaren administrazio-zelulak gero eta artikulazio handiagoranzko proiektzio kontzeptuala du hasieran, mugarik gabe txertatuz fronte berriak, militante sorta berriak, potentzia berriak eta lurralde berriak, nazioarteko eztabaidaren bi dez aldatuz eta hobetuz. Hori da gaur egungo nazioarteko eztabaidari egiten diogun ekarpena, praktika gisa, antolaketa-esperientzia gisa, hori entseatuko dugu, hori egiten ari gara.

Botere-lotura, alderdi-zelulak, urrats berri bat, ekimenari eutsiz, ilusioa antolatuz.

Egungo koiunturaren eginkizun ezberdinak (I): Kosmobisio komunistaren sozializazioa

[Sabin Aranburu](#)

GEDAR

2021/03/11

<https://gedar.eus/koiuntura/egungo-koiunturaren-eginkizun-ezberdinak-i-kosmobisio-komunistaren-sozializazioa>

Ia zerotik hasiera derrigortuak izan gara: hau da XX. mendetik arrastaka darabilgun langile mugimenduaren porrotaren seinale handiena. Ez da soilik zerotik hasi antolakuntza efektiboaren prozesu berria, aurreko mende hasieratik hedatua zegoen teoria eta praktikarako kosmobisioa ezagutu eta berreskuratze prozesua zerotik hasi behar izan dugu. Oinarritik hasi behar izan gara jarduten, azkenengo hamarkadetako egiturazko baldintzekin erlazioan (krisia) une hau interpretatu eta eraldatzeko han edo hemen ageri ziren gakoek ez gintuztelako asetzen. Ez forma idealista, ameslari edo infantilean hautsi nahi genuelako, gaztetasunaren errebeldia inkontziente batek bultzatuta edo. Gogor kolpatzen gaituzten forma ekonomiko, politiko eta kulturalen erroa ulertu nahi genuen, erro hori bera aldatzeko.

Ez gintuen asetzen unibertitatean, parlamentuetan, telebista kateetan zein kalean ematen ziguten azalpenek ezta aurre egiteko errezeta politikoez ere. Ez gintuen asetzen guztiz ezberdina izango zen etorkizun batekiko esperantza ezak. Ez gintuen asetzen gero eta argiago identifikatu genitzakeen etsaiekiko eta beraien instituzioekiko ezkerretik proposaturiko politika itundun eta bakezaleak.

Azken hamarkadetako ezaugarri nagusia gizartearen desideologizazioa izan da. Langile klaseak eta praktikara eramandako proposamen komunistak aurreko mendean protagonista izatetik kosmobisio utopiko eta infantil izatera pasa zen. Erroko baldintzetatik eratorritako proposamen iraultzailea kosmobisio burgesaren aurrean galtzaile ateratu zen, aipatu azken garai hau indibidualismoak eta (in)posibilismoak ezaugarritzera pasatuz.

XX. mendean eman zen mugimendu historikoak kosmobisio komunistaren barruan zenbait korrante ezberdin sortu bazituen ere (teoriaren eta praktikaren baturaren ondorioz) ez zuen bat edo besteak zuzenean irabazi. Korrante guztien porrota izan zen. Porrot militar edota politiko bat izatetik haratagokoa izan zen hau, beraz: mundu-ikuskeraren beraren porrota izan zen. Gramsciren analisisien aportunak jasota, gizartearen gaineko hegemonia burgesaren garaipena izan zen (bortxaz eta kohesioz) eta kultura zein indar antolatu proletarioaren amaiera.

Geroztik, burgesiak guztiz pribatizatu egin du boterearen eta gobernantzaren jokomahaia. Ez du soilik bere kosmobisioa pentsamendu bakartzat inposatu, mundu-ikuskerara komunistaren -eta beraz, proiektu hau burutzeko aukera eta esperantzen-arrastoak behin eta berriz suntsitzen aritu izan da gaur egunera arte.

Mundu-ikuskerara burgesaren barruan, kosmobisio komunistarekin gertatu bezala, korrante ezberdinak agertu ohi dira. Nire ustetan, analisi soziologiko burgesek definitzen duten gisara gizartearen eta politikaren ezker, erdi zein eskuinean kokatzen

dituzten giza sektoreek ordezkatuko lituzkete kosmobisio horren korrante ezberdinak. Dakigunez, azken hamarkada luzeetan ezker mugimendu historikoak etsaiaren aparatuekiko integrazio prozesu bat bizi izan duen heinean, kosmobisio burgesaren ezker hegala bilakatu da, eurokomunismoaren esperientziatik aurrera. Guztiek dute oinarri berdina: gizartearen norantza determinatzen duen klase determinazioa alde batera utzi eta mundua interpretatzeko kausa anitzen teoriak osatzen dira. Horrela, errealitate kapitalistaren aparientziara mugatuak daude ulerkerari dagokionez, merkantziaren fetitxismoaren lurreko erreinuan. Giza ezberdintasunak naturaren legeei jarraiki ulertzen dira edo itxurazko aberastasunaren banaketa eta zirkulazioaren injustizia bati jarraiki. Muga horretan, gizarte burgesaren determinazioak onartuak dira alde guztien partetik eta beraien arteko tira-birak determinazio hauen etengabeko birformulaketetan agortzen dira. Pentsamendu hila birproduzitzen duen mundu-ikuskerak da burgesa, bere mekanismoek immanenteki sortzen dituzten mugimenduak ulertzeko ere gai ez dena. Kosmobisio iraultzailearen aurka izandako jarrera suntsitzaileak eta pentsamendu hila izateak, gainera, gaur egun soziologia burgesak definituriko sektore ideologikoak inoiz baino likidoagoak eta ahulagoak izatea ekarri du, sektore ideologiko markatuen aurrean masa pentsamendu uniforme eta indibidualista gailenduz.

Egoera latz honetan eman da kosmobisio lurperatu baten berreskurapena. Zerotik hasteko eginkizun printzipala. Leninen lezioak oinarri izanik (beste iraultzaile askorekin batera) egoera konkretu baten analisi konkretua egitera itzuli gara, marxismoaren oinarri teorikoen eta Prozesu Sozialistaren esperientzia historikoaren ikasketa kritikotik abiatuz. Hau baita, bere hitzetan, «marxismoaren arima bizia edo sustantzia».

Mundu-ikuskerak komunistak determinazio bat ezartzen du posizio teoriko, politiko eta kulturalari dagokionez: klase determinazioa. Honek ezaugarritzen du gizarte kapitalistaren funtzionamendua eta berarekin hertsiki loturik garatzen den -eta azken muturreraino garatu daitekeen- klase borroka. Klase determinazioak bi giza talderen arteko antagonismoa du ondorio. Horrela, egitura kapitalistaren zein aurreko bi mendeetako klase politiken esperientziaren azterketa kritikotik abiatuz, ikuspuntu komunistak klase zapalduaren independentzia edo autonomia ondorioztatzen duela deritzot. Giza eraldaketa erreala egitura kapitalista bera gaindituz eman daiteke soilik, egungo egiturak klase-arteko politika asimilatze bide baten gaitasuna erakutsi baitu. Ez behin edo bitan, kapitalismoaren garapen historiko osoan zehar baizik. Klase zapalduak eta bere barneko subjektu iraultzaile gidariak (proletariotzak) bere eginkizun propioa du: mundu zaharra suntsitu, mundu berria eraikiz. Eta mundu zaharra ez da burgesiaren laguntzaz suntsituko. Klase independentzia teorikoak, politikoak zein organizatiboak kosmobisio eta praxi komunistaren printzipio izan behar dute.

Justizia unibertsala hedatu ahal izatea da komuniston helburua. Gizartearen aberastasun sozialaren sozializazioa. Burgesiak gutxiengo baten aldeko gizarte zapaltzaile eredu bat inposatzen du, bere irabaziei begira beti. Ikuspuntu komunistaren printzipioa horren aurkakoa da, berriz.

Azkenik, komunistok teoria eta praktikaren batasunaren bitartez soilik egin dezakegu aurrera. Hau da praxia. Azterketatik ekitera eta berriro buelta azterketa berrira, mugimendu honen gorputzea antolakuntzan adierazten delarik. Gizarte berri bat antolatu nahi dugu eta egun gogoz kontra eta erabaki gaitasunik gabe forma burgesak antolatzen gaitu, banaketa sozial klasistan. Baina egungo bozketa eta ordezkari forma arduragabearen aurrean, komunistontzat antolakuntzaren auzia ez da soilik kanpotik

agindutako helburu batzuei loturiko bitarteko bat, helburuen eraikuntza bera da, indar erreal gisa.

Klase determinazioak, beraz, kosmobisio komunista gorpuzten du. Klase borrokan subjektu politiko komunista aktibo eta arduratsua eraikitzearen garrantzia, guztiontzat eta unibertsala izango den aberastasunaren ekoizpen eta erreprodukzio eredu sozialistaren alde egitearen garrantzia, «askatasunaren erreinua» irabazteko elkartasun antolatuaren printzipioaren garrantzia eta abar luze bat dira mundu-ikuskeraren onorio zuzenak. Ondokoarekiko solidarioa eta etsaiarekiko bihozbera, ulertzeko eta eraldatzeko potentziaduna.

Errealitatean ageri da, baina, kosmobisio hau ez dela oso popularra masa zabaletan. Hala ere, egitura kapitalistaren tendentziek gizartearen polarizazio gero eta nabariagoa eragiten duten garaiotan kosmobisio burgesaren maskarak baino esperantzatsuagoa izatera iritsi daiteke. Horretan datza gure lehentasunezko eginkizunetako batek: politikoki, ekonomikoki, filosofikoki zein kulturalki ikuspegi hau sozializatzean. Estrategia eta taktika mundu-ikuskerarekiko leiala izanez. Teorian eta praktikan. Ahalik eta masa zabalenetan. Burgesiaren agente zuzen zein zeharkakoekin inguruarekiko ulerkeraren talkan batetik, eta gure kosmobisioak egungo baldintzetan izan behar duen ibilbidea aztertzen bestetik, galdera handiei ahalik eta erantzun zentzudunenak emanez: zer da masa antolakuntza egun? Nola antolatzen da ekoizpen eta birprodukzio forma sozialista? Nola kolpatu era egokienean egungo burgesia eta bere aparatuak? Nola antolatzen da forma demokratiko arduratsu bat?

Ia zerotik hasiera derrigortuak izan gara. Proiektu komunistaren porrotari buelta emateko gure aportazio xumean ez dugu amore emango. Beharrezkoa zaigu, horretarako, kosmobisio komunista lau haizetara zabaltzen jarraitzea, ikuspuntu honek izan duen esperientzia aberatsa eta bere printzipioen justutasuna sozializatzea. Eztabaidak eta sozializazioa. Azken urteetan kosmobisio hau langilerian barrena zabaltzen izan dira mugimendu sozialista deritzogunaren zenbait antolakunde eta aportazio horretan sakontzeko eginkizuna daukate Kontseilu Sozialistek ere.